

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 28a / 652. zenbakia

A close-up, profile portrait of an elderly man with a full white beard and mustache. He is looking downwards and to the left. He is wearing a dark suit jacket, a white collared shirt, and a blue patterned tie.



Pedro de Biteri

Filantropo arrasatearrari omenaldia egingo diote

ORAIN ETA HEMEN: NEKANE SAN MIGUEL/8 • KULTURA: CANTE FLAMENKO JAIALDIA/15

ARGAZKIA: 'DON PEDRO DE VITERI Y ARANA' LIBURUA

EDERTASUN GIDA/24



UDALAITZ

Gipuzkoa etorbidea 36 ARRASATE
Tel.: 943 71 18 70 Faxes: 943 71 18 71

KALEINKESTA/ Zainketan ditzuzu energia eta ur kontsumue?



MAITE LOPEZ
Langillie

Egixe esan biher badot, ez ditztut askorik zainketan. Pentsetan dot jentie ez daue-la oso kontzientziaute, eta kontsumue zainketan daue-nak gutxiau gastetako egitten dauela.



MAIDER BERRIO
Ikaslie

Bai, horreittan kontuotan nahiko kontzientziaute nau, eta ahal doten neurri-xen kontsumue zaindu egitten dot. Danon onerako da, eta danok zaindu biher dogu apur bat.




MIKEL BENGOA
Langillie

Egixe da energia eta ur kontsumue zaindu egin biher-ko geukela; baiñe, egixe esatiarren, nik ez dot bape zainketan. Bestiek ez dakit ze egingo dauen, baiñe nik ezer gutxi egitten dot.




LIBE ZUBIA
Langillie

Etxien ahaleginketan gare umiei gutxi gastau biher-dala erakusten: dutxan den-pora luzez ez egoteko, argi-xek itxungi egin biher die-la... Hor burruka haundixe daukogu.



AITOR YANEZ
Langillie

Askorik ez. Nik esango neuke jentiek kontsumue zainketan badau ez dala kontzientziaute dauelako; gutxiau pagetako egitten daue hori. Eta neuk be horregaittik egitten dot.



JAVI JUAREZ
Langillie

Argixe zainketan dogu, baiñe ur kontsumue ez. Egixe esatiarren, etxien ez daukogu kontzientzia haundirik. Reziklau egitten dogu, baiñe kontsumuei ez dutze-gu kasu haundirik egitten.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OZTOPO ARKITEKONIKOAK Ezintasun fisikoa daukan irakurle batek aditzera eman digu aspaldian herrian oztopo arkitektonikoak kentzeko ahalegin handia egin dela. Hala ere, oraindik bere kasa gurgil-aulkiarekin ibiltzeko zailtasun handiak ditu, hainbat espaloi ez daudelako ondo egokituta. Horrez gain, zebra-bideen parean aparkatzen duten gidariekin kalte egiten diotela salatu du.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

Errepresioa salatu dute

Herritar talde batek salatu zuen Arrasaten errepresioa eta kontrol poliziala areagotu egin direla.

KIROLA /12

Igoera fasea urrunegi

Ointzek galdu egin zuen Paduraren kontra, eta igoera faserako sailkatze-ko aukera ia guztiak galdu ditu.

KULTURA /14

Taun Taunen ikuskizuna

Bihar, zapatua, Taun Taun taldeak umeendako *Galtzerdia* panpinen ikuskizuna egingo du.

ASTEKODATUA

15

URTE BETEKO DITU ARRASATE PRESS- EK

Abenduan 15 urte beteko ditu ARRASATE PRESSek. Eta aste-buru honetan Topaguneak antolatu dituen jardunaldietan omenaldia egingo diote tokiko aldizkarietan aitzindari den honi.

BESTE EKESANA

“Euskarazko tokiko prentsa fenomeno sozial moduan, ARRASATE PRESS astekariarekin batera

sortu zen 1988an. ARRASATE PRESS ez zen euskaraz argitaratutako lehen toki aldizkaria izan, baina bai gehien iraun duena, eta bere ondoren jaio diren ia gehienentzat begiratu beharreko ispilua izan da. ARRASATE PRESSen ereduari jarraiki eratu da tokiko euskarazko prentsa. ARRASATE PRESSek, herriz, Mendebaldeko Europako eta AEBetako tokiko prentsa hartu zuen eredu eta bere merkatuko beharretara egokitu. Oso apustu garbia egin zuen hasieratik: bere zabalkunde-eremuan merkatuko liderra izatea, beste edozein egunkari edo aldizkari baino irakurle gehiagorengana iristea. Hartarako, Arrasateren berri ematea erabaki zuen...”

JOXE FELIX DIAZ DE TUESTA
'EUSKONEWS'/03-11-21

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Seattle-etik Euskal Herrira

Epa Alex, ze moduz? Megan eta Yull banandu egingo dira laster. Geoffek eta biok orain dala urte bat ezagutu genittuen eta beste bost bikotekin batera, “Kemen koadrilla” sortu gendun.

Oso talde kuriozosa da. Pareja bakoitza Gringo bateaz eta espainolez hitzegiten dauen beste partaide bateaz osatuta dau: Megan, Marylandekoa eta Yul Colombiakoa; Brandon Wiscosinekoka eta Alejandra El Salvadorekoa; Amber Floridakoa eta Roberto Costa Ricakoa; Jessi Washingtongoa eta Pati Mexikokoa; Luis Chilekoa eta Brook South Carolinakoa; eta Geoff Washingtongoa eta ni Euskal Herrikoa.

Azkeneko partez sei pareja horietatik hiru banandu egin dira edo banatzeke daz. Eta niri honek erlazioei buruz erreflexionatzera narama.

Zer dala eta euskaldun eta amerikarren arteko diferentzia hau? Lasaiiii... Euskaldunen

atala esplikatu dot. Nire Arrasateko koadrila, Daltondarrik: Itsaso eta *Ataxi*; Ana eta Roman; Aingeru eta Marixabel; Miren eta Josu; Maite eta Aitor; Erru eta Roberto (zorionak!); *Kas* eta Nagore; Jon eta Marilu; Orre eta Mallabi; beste *Ataxi* eta Arantza... Onezkerok hamar

“Zer gara euskaldunak? Pazientzia handikoak, gehixegi jasaten dogunak, ala tontuak?”

bikote daroiet eta ez dot amaittu. Eta iñor separau barik. Eta ez hori bakarrik, hoietako askok bost urte baño gehixau batera.

Bi koadrilak izugarri jatorrak; bi taldeen arteko adiña antzerakua; bi koadrilletan umiak.

Zer dala eta banaketen portzentaien arteko alde hori? Seitik hiru, hamarretik zero? Zer gara euskaldunak? Pazientzia handikoak ala gehixegi jasaten dogunak? Aguante handikoak ala tontuak eta tontiak? Hor doie galdera.

Nik neuk erantzuna badauket baña ez noia botatera. Uhh... larreiko krudela.

Beraz, ondo izan eta urte askotarako izan dein.

Aupa, Enrike.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA

Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA

55-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 28
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65

ZAPATUA, 29
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

DOMEKA, 30
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

ASTELEHENA, 1
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

MARTITZENA, 2
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

EGUAZTENA, 3
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUENA, 4
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

EGUBAKOITZA, 5
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitza 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitza 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILERAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRIAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEKARRON LIBURUTEGIA
MonteKarron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskarak) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskarak) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)	San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskarak) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskarak) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskarak) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskarak) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marina eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)		

OHARRAK

IKUSKIZUNA GAZTETXEAN
Eguaztenean, abenduaren 3an, Pikor taldeak *Ikutuz ikutu* antzezlanaren egingo du gaztetxean. 18:00etan izango da eta Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatuta du.

JOKIN ZAITEGI LEHIAKETA
Eguenean, abenduaren 4an, Jokin Zaitegi lehiaketari esker argitaratu duten *Zoririk ez* liburua aurkeztuko dute. 19:00etan izango da, Monterronen. Horrez gainera, Palestinaren gaineko diapositibak emango dituzte.

TALOAK EGITEKO IKASTAROA
Ekin Emakumeak elkarteak taloak egiteko ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. Eman izena abenduaren 5a baino lehen. Matrikula doan da.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA
Martitzenean, abenduaren 2an, Arrasateko Musika Eskolako tronboi, bonbardino eta tuba ikasleek kontzertua egingo dute eskolan, 19:15ean.

ESK-REN BERBALDIA
Eguaztenean, abenduaren 3an, Norma Vazquezek *Feminidad y masculinidad, los opuestos* berbaldia egingo du udaletxe osoko bilkuren aretoan. 19:00etan, ESK-k antolatuta.

AEDrenAGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK
2004ko Seaskako egutegiak salgai daude AEDko bulegoan. Hiru eurotan saltzen dituzte.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Martitzenean, abenduaren 2an, *Berria*-ren gaineko bideoa emango dute eta langile batek azalpenak emango ditu Eskola Politeknikoan, 19:30ean. Egunkaria aurrera! plataforma.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


102 gazte soldadutzara joateko zozketan

Militarren ordenagailuek 102 gazte arrasatear zozketatu zituzten. Zozketa egunean bertan greba egin zuten herriko ikastetxe batzuetan, eta bi manifestazio ere egin zituzten. Gazteen Informazio Bulegoan jaso zituzten eragozteko edo intsumiso egiteko informazio eskaerak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Izarratu"



Zerua izarrez beteta.
—Atzo etxera etorri giñanian zerua izarratu zeuan.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 19 **0 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 22 **18 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	16 °C	0 °C	- l/m ²
Eguena, 20	17 °C	1 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 21	16 °C	3 °C	- l/m ²
Zapatua, 22	18 °C	10 °C	1,9 l/m ²
Domeka, 23	13 °C	12 °C	3,4 l/m ²
Astelehena, 24	11 °C	7 °C	1,7 l/m ²
Martitzena, 25	11 °C	2 °C	- l/m ²


San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Nekane San Miguel epailearekin

Astean genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izan dela eta, horren gainean egin dugu berba Nekane San Miguel epaile arrasatearrarekin. Legeak zer dioen eta gaia zelan ikusten duen azaldu digu Nekane. Zapatua eta domeka goizean errepikatuko dugu elkarrizketa, baita Juanjo Otaño HUHEZIKO zuzendariarekin izandakoa ere. Aste gogorra izan dute Eskoriatzako fakultatean, joan den astean hiru ikasle hil ziren-eta.



Igor Elortzaren txanda martitzenean

Aintzane Gardokik GOITBn Igor Elortza bertsolariari egindako elkarrizketa eskainiko dugu martitzenean, abenduaren 2an, iluntzeko albistegiaren ondoren. Martitzen goizean, berriz, *Berria* egunkariako langileekin izango gara, proiektuaren berri ematera Arrasatera etorriko direla aprobetxatuta. Eta Durangoko Azokaren atarian, behin baino gehiagotan joko dugu azokaren antolatzaileengana, aurtengo azokak zer berri izango duen galdezka.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Nekane San Miguel, epailea; Juanjo Otaño, HUHEZIKO zuzendaria; Iker Barandiaran eta Txili Lauzirika idazleak; Aitor Zuberogoitia, Tokiko hedabideen jardunaldietaz; Aitor Solozabal baseritarra...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Igor Elortza

ASTEABIHITZETAN

Lan esparrua euskalduntzeko konpromisoa

Joan den egunean prentsaurrekoa eman zuten Bilbon Artez, Elhuyar eta Emun kooperatibako kideek. Enpresa horiek lan esparruan euskara sustatzeko ahaleginean dabilta, eta egunean euren lanaren gaineko azalpenak emateaz gain, elkarlanean euskara bultzatzeko konpromisoa hartu zuten.

Lan esparrua euskalduntzeko dinamika indartu egin da azken bospasei urteotan. Egun, 80 enpresak dute euskara plana. Plan horrek 43.000 langile baino gehiagori eragiten die zuzenean.

Haur Hezkuntzako Jardunaldiak

Joan den egunean eta egubakoitzean, MUko HUHEZI Fakultateak 0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntzaren gaineko bigarren jardunaldia egin zuen Amaia antzokian.

Haurrak gero eta lehenago murgiltzen dira hezkuntza sisteman; neurri handi baten, gurasoek umeak zaintzeko astirik edo aukerarik ez daukatelako. 0 eta 3 urte bitarteko haurren hezkuntzari buruzko ikerketa gutxi daude, eta daude nazioartekoak dira. Horri aurre egiteko, HUHEZI Fakultateak eta Arizmendi Ikastolak Hazitegi proiektua jarri dute abian.

Emakumeendako soldadura ikastaroa

Joan den egubakoitzean hasi zuten ibarreko hamabost emakumek soldadura ikastaroa. Hamabost emakume horietatik hamabi arrasatearrak dira; gainontzeko hirurak Oñati eta Bergarakoak dira. 30 eta 40 urte bitarteko emakumeak dira guztiak, aparteko ikasketarik egin ez dutenak. Urte batzuk daramatzate langabezian, eta ikastaroarekin egoera horri amaiera eman gura diote. Udaleko Enplegu Sailaren ustez, ikastaro horrek emaitza onak ematen ditu.



Kale agerraldi jendetsua zapatuan

Zapatu arratsaldean, *Errepresioari stop, atxilotuak askatu!* lelopean ehunka lagunek asteotan izandako atxilotetako salatuz zituzten. Atxilotu horien artean Gaizka Azkarate, Igor Letona eta Saioa Altzua mondragoetarrek daude. Atxilotetaz gain, guardia zibilen jarrera errepresioa ere salatuz zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Asteroko hitzordua, zuei esker

Orain dela gutxi AEDren 20. urteurrenaren berri eman genuen. Oraingotan, berriz, esku artean daukazuen aldizkariaren, ARRASATE PRESSen, urtemuga betetzera doa. 1988ko abenduan egin zuten lehenengo zenbakia, oso baliabide gutxirekin. 15 urteotan gauza asko pasatu dira, ugari, baina arrasatearrok aldizkaria astero etxean

jaso dugu. Ez dakit ekimen hori abian jarri zutenek baina ote zekiten aldizkariak halako iraupen eta sendotasuna hartuko zuenik. Dena dela, proiektuari sustrai sendoak ipini zizkioten eta egitasmoa eta enpresa bera izugarri handitu da.

Aldizkariak izan zuen azkeneko aldaketa handia 2001ekoa izan zen. Aldizkari formatuan egitetik egunkari

itxura hartu zuen, eta gainera Goienkaria-ren barruan. Batek baino gehiagok negar egin zuen, baina ARRASATE PRESSEk ez du galdu eta gainera beste komunikabide eraginkorrago bati protagonismoa eman dio, eskaintza osoagoa emateko.

Asteburuan, Topaguneak antolatutako tokiko hedabideen jardunaldietan ARRASATE PRESSi omenaldia egingo diote. Omenaldi hori zuentzako, irakurleentzako, ere bada!

ASTEKO IRUDIA




GORKA MORRAS

EMAKUMEENGANAKO ERRESPECTUA ESKATU ZUTEN HERRIKO PLAZAN

Beste urtebetez emakumeek jasaten dituzten tratatu txarren gainean berba egin behar dugu. Egoera larria da, eta badirudi, kanpora begira behintzat, jende asko jabetu dela horrekin. Hala ere, egoerak hobera egin beharrean txarrera egin du. Halakoetan epaitegiatarra begiratu ohi dugu, horixe balitz bezala guztiaren

konponbide. Baina ez da hala. Konponbidea gure esku dago, gizartea osatzen dugun herritarron esku. Eta hezkuntzarekin eta irakaskuntzarekin konpontzen da. Izan ere, biolentzia horren oinarria mendetan emakumeoi ezarri diguten bigarren mailako izate horretan dago. Bada ordua gauzak aldatzeko. /U.M.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
 - Aglomeratuak
 - Kontraxapatuak
 - Tablexa
 - Ateak
 - Egurrezko leihoak
 - Oin-inguruak
 - Zangoak
 - Aroztegiko osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak

Gorka
ilepaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Astelehentik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

KULTURA / Pedro de Biteri filantropo arrasatearrari omenaldia egingo diote jaio zeneko 150. urteurrenean

Biteriren omenaldian, Juanito Leibarrek haren gaineko liburua aurkeztuko du

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, Biteri egoitzako ikasturtearen hasiera ekitaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian. Biteri eskolak 100 urte bete ditu, eta horren harira, Pedro de Biteriren gaineko liburua aurkeztuko dute. Juanito Leibarrek idatzi du, eta Udalak argitaratu.

Juanito Leibar historialari eta irakasle ohia Pedro de Biteriren gaineko informazioa batzen dabil aspalditik. Juanito Leibarrek berak Pedro de Biterik Arrasaterengatik egin zuen guztia goraiatu du, eta haren gainean lortu duen guztia gorde du.

Biteri ikastetxe nagusiko arduradunek Juanito Leibarri informazio horrekin guztiorrekin liburu bat egitea eskatu zioten. Leibar Ikasbideko Jose Maria Ormaetxearekin harremanetan jarri zen, eta Ormaetxeak berak liburuaren argitalpena bultzatzea erabaki zuen. Horretarako, Udaleko Kultura Sailera jo zuen, eta Arrasateko Udalak liburua argitaratzea erabaki zuen.

Liburu hori gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute. Elebiduna da -gaztelaraz eta euskaraz argitaratu dute-, eta 114 orrialde ditu. Guztira 1.500 ale banatuko dituzte. Ekitaldia 19:00etan izango da, Amaia Udal Antzokian. Ikasturte akademikoa hasiko dute eta, besteak beste, aurtengo ohorezko egoiliarak izendatuko dituzte bertan.

Orain dela bi urte, Leibar Biteri egoitzako ohorezko egoiliar izendatu zuten, eta Juanitok aurtun, Biteri eskolaren 100. urteurrenean, liburu hori aurkeztea erabaki du. Pedro de Biteri eskolaren eta egoitzaren fundatzailea izanda, testuinguru aproposena dela deritzo.

HEZKUNTZAREN ALDEKO FILANTROPOA

Juanito Leibarrek idatzi duen liburuan Pedro de Biteriren ibilbideari gainbegiratu sakona egin dio. Pedro de Biteri 1853an jaio zen Iturriotz kalean. Aita arabarra zuen, aberatsa, eta ama, berriz, arrasatearra. Aita 1847an hil zen. 1874an, ezkondu egin zen, Ingalaterrako emakume batekin. Ama 1876an hil zen eta zeukan anaia bakarra, berriz, 1892an -hura ere aberastu egin zen, negozio batzuei esker-. Horren ondorioz, Pedro de Biteri gurasoen eta anaiaaren aberastasun guztien oinordeko bilakatu zen.

1893an, atzeritik Arrasatera bueltatu zen kultura eta hezkuntza alorretako proiektuak aurrera eramateko asmoarekin. Besteak beste, Garibairen etxea berri-itu egin zuen eta epaitegi bihurtu. Horrez gain, Zaldibarko frontoia egin zuen eta Seber Altubeko ber-



"DON PEDRO DE BITERI Y ARANA" LIBURUA

Pedro de Biterik utzi zuen ondare garrantzitsuen izan zen Biteri eskola.

Juanito Leibarrek Biteriren gaineko liburua idatzi du, eta Udalak argitaratu

dura azoka eraiki zuen. Juanito Leibarrek honako bitxikeria ikeritu zuen: Pedro de Biteriren ustetan, Arrasateko Herriko Plazak

Pedro de Biteri filantropo arrasatearrak hezkuntza bultzatu zuen

zabalagoa izan behar zuen. Horrez gain, San Juan Bautista elizaren sarrera alderantziz kokatuta zegoela zioen, plazari bizkarra ema-

Maisu Aranok eta emazteak Biteri Fundazioaren eskola eredu-garria bilakatu zuten

ten ziolako. Horregatik, parrokia Biteri lorategira eraman gura zuen. Udalarari gutun bat bidali zion, baina ez zioten jaramonik

Biteriren oroitarria, dagokion lekura

On Jose Maria Arizmendiarririk Biteri-ri eta Aranori lekukoa hartu zien. Izan ere, Eskola Profesionala Biteri eskolako egoitzan jarri zuen abian. Biterik eta Aranok 14 urte arteko arrasatearren hezkuntza bermatu zuten. On Jose Mariak, berriz, 14 urtetik aurrerako eskolak bermatu zituen. Zelanbait, aurreko biek egindako lanari jarraipena eman zion.

Pedro de Biterik beste hainbat herritan ere eraiki zituen eskolak: Hondarribian, Pasaian, Irunen, Donostian, Aretxabaletan, Urnietan... Leibarren ikerketen arabera, Biterik sasoiko milioi bat pezeta baino gehiago (egungo 10.000 euro inguru) eman zituen eskolak eraikitzeko, lorategiak egiteko, eskolako materiala erosteko... Hala ere, gauza gehien Arrasaten egin zituen. Luzaroan Biarritzen bizi izan zen arren, Arrasateko herria bihotzean

zeraman. 1902an, Arrasateko seme kutun izendatu zuten.

1908ko ekainaren 26an, Biteri hil eta hilabetera, omenaldia egin zioten Arrasaten. 1911n, berriz, haren omenezko oroitarria ipini zuten Biteri lorategian. Urte batzuk geroago, baina lorategi horretan lanak egin zituzten eta oroitarria udal-tertxeko sotoetan gorde zuten. Urte batzuk geroago, ordea, oroitarria Grupo San Juanen ipini zuten.

Juanito Leibarren eta beste lagun batzuen esanetan, Biteriren oroitarria erdi ezkutututa dago eta aspaldian kalte handiak izan ditu. Hainbat arrasatearren ustetan, oroitarri horrek eskolak zeuden toki berean egon beharko luke. Adituen esanetan, oso arrasatear gutxi egin diote Arrasateri Biterik egin zion besteko mesederik, eta hori Biteri zenari ez diogu oraindik behar den bezala eskertu.

egin. Egia esanda, bitxia izan zen burutazio hura.

1901ean, testamentua idatzi zuen. Testamentuaren arabera, Arrasateri lagundu gura zion eta horretarako, batez ere, hezkuntza bultzatu gura zuen. Horrela, Biteri Fundazioa sortu zuen. 1902an, Fundazioak lehen fruituak eman zituen: Biteri Eskolak.

ESKOLA EREDUGARRIA

Biteri Fundazioak Maisu Arano eta haren emaztea, Teresa Garcia, izendatu zituen eskolako arduradun eta andereño, hurrenez hurren. Bikote hark Biteriren ideia filantropoak hezkuntzan aplikatu zituen. Maisu Aranok eta emazteak herrian hezkuntzaren alde egindako lana oso handia izan zen, eta Leibarrek liburuan Aranoren gaineko eranskina egin du.

Biteri eskola ez zen erlijioaren aurkakoa, baina bai laiko. Ez zegoen apaizik zuzendaritzan. Arrazoi horregatik, kritika handiak izan zituzten. Eskola hari esker, 14 urte arteko arrasatearrek eskolak jaso zituzketen. Mesede handia egin zion herriari, eta eskola inauguratu zutenean, ekitaldian Gipuzkoako diputazioko agintariek hartu zuten parte.

Juanito Leibarrek egin dituen ikerketen arabera, Biteri eskolan mutilen %2k eta nesken %10ek bakarrik egiten zuten piper; sasoi hartan, Espainiako Estatuko batez bestekoa %50ekoa zen. Maisu Aranok eskola emateko modu berezia zuen, eta emaitzak eta motibazioa agerian gelditu ziren. Hori irudikatzen, Leibarrek halako bitxikeria morda batu ditu.

Horrez gain, esanguratsua da oso Biteri eskolan ikasi zuten arrasatearren gainean Leibarrek egiten duen aipamena: "Era guztietako arrasatearrek ikasi zuten eskola hartan, izen handikoak asko eta asko. Besteak beste, errepublikarrak -Resusta-, misiolariak, karlistak -Bastida, Otadui-, abertzaleak -Kataide, Tiburcio Arregi-, iraultzaileak -Marcos Vitoria, Jesus Trincado-, enpresa-gizonak -Resusta, Agirrebeitia-, alkateak -Otadui, Bastida, Resusta- eta militarrik -Yurre kapitaina-. Han ikasi zuten bi arrasatear bakarrik daude bizirik: David Arzamendi eta Azkoaga (izena ez dute gogoratzen).

1908an hil zen Pedro de Biteri, Biarritzen, baina haren Fundazioak lanean gogor jarraitu zuen. Eta 1929an hil zen Felix Arano Maisu Arano. Eskolak bere horretan jarraitu zuen, 1936an Frankoren jarraitzaileek bere gain hartu zuten arte. 1943an, berriz, On Jose Maria Arizmendiarririk eraikin berean Eskola Profesionala sortu zuen.

POLITIKA/ Azaroari dagokion osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean

Datorren urtean eskola publikoek 0-3 urte bitarteko hezkuntza eskainiko dute

UBANE MADERA

Gai bakarra izan ezik, gainera guztiak aho batez onartu zituen udalbatzarrak asteleheneko osoko bilkuran. Eskola publikoetan 0-3 urte bitarteko hezkuntza ematearen alde PSE-EE alderdiak aurkeztutako mozioak piztu zuen zinegotzien arteko eztabaida.

Hezkuntza publikoaren aldeko mozioa aurkeztu zuen PSE-EEK azaroari dagokion osoko bilkuran. Hain zuzen ere, 0-3 urte bitarteko umeen hezkuntzaren gainean zera zioen mozioak: Jaurlaritzari eskatzea 0-3 urte bitarteko hezkuntzaren eskaintza bidezkoa egin dezan, eskola publikoen eta pribatuaren artean desorekarik sortuko ez duena eta euskaldunen berdintasunerako eskubidea errespetatuko duena. Era berean, Arrasateko Udala Haurreskolak izeneko partzuergoan sartzeko eskatu zuen, eta partzuergo horren estatutuak onartzeko.

Eusko Alkartasunak gai beraren gaineko mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Oro har, Haurreskolak izeneko partzuergoaren hedapenaren aldekoa zen mozioa.

Eta Inazio Lakuntza alkateak, berriz, adierazi zuen PSE-EEK aurkeztutako mozioa lekuz kanpo zegoela, besteak beste, Udala badabilelako gai hori lantzen, eta datorren urtean izango delako Arrasaten halako eskaintzarik.



Gaur egun Umezaintzak eta Mesedeetako ikastetxeak eskaintzen dute 0-3 urte bitarteko hezkuntza Arrasaten.

*Auzoetan
aukeratutako
alkateen
izendapenak onartu
dituzte batzarrean*

*Egitamu Orokorra
dela-eta, hiru gai
landu zituzten
zinegotziek
astelehenean*

*Hemendik aurrera,
mozio bat osoko
bilkuran lantzeko
indar politiko baten
babesa beharko du*

tako helegiteak direla-eta Udalak prozesu horretan parte hartzea, Udalaren interesak defendatzeko.

Bestalde, Mendibarren eta Gautxoriko Barne Erreformako Plan Berezia behin-behinekoz onartu zuten zinegotziek.

MOZIOEKIN LOTUTAKO ARAU BERRIA

Bukatu baino lehen, alkateak jakinarazi zuen epea kanpo bi mozio aurkeztu zituztela. Bata, Ezker Batuak (EUDELen gainekoa) eta bestea, Xabier Zubizarretak (azken atxiloteten gainekoa). Biak hala biak hurrengo Bozeramaileen batzordean aztertuko dituztela esan zuen Inazio Lakuntzak.

Horrekin batera, jakinarazi zuen, hemendik aurrera, edozein mozio osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin Udaleko alderdi politikoren baten babesa beharko duela. Berdin da zer mozio mota den, politikoa, gobernu kanpoko erakunde batek aurkeztutakoa... Indar politiko batek babestu beharko du osoko bilkuran aurkezteko. Hala erabaki zuten orain dela pare bat asteko Bozeramaileen batzordean.

Osoko bilkura bukatu baino lehen Paco Garcia sozialistak Jose Etxeberriak Guatemalara egindako bidaiaren gainean galdetu zuen. Haren esanetan, alderdi guztiei ez zaizkie jakinarazi Aralarako alderdikidearen bidaiaren nondik norakoak. Alkateak erantzun zion, besteak beste, Joxe Etxeberriak berari eskatu ziola joateko baimena eta eman egin ziola.

teko eskola publikoaren ordezkariak izan ziren. Tartean, Agurtzane Barrutia zuzendaria. Hark esandakoaren arabera, Arrasateko alderdi politikoaren aldetik bestelako erantzuna espero bazuten ere, uste dute gai horrekin lotutako atea ez dela itxi. Herrian badagoela eskaera eta premia. Eta, batez ere, alkatearen hitza kontuan hartzen dutela; hau da,

datorren urtean beteko dela eskola publikoetan 0-3 urte bitarteko hezkuntzaren eskaintza. Gaineratu zuten eurek ikastetxe moduan ezin dutela eskaera hori egin, Udalak eskolekin batera egin behar duela.

BESTELAKO GAIK

Gai horrez gain, bestelakoak ere landu zituen udalbatzarrak, eta

aho batez onartu zituzten zinegotziek. Bata, auzo-alkateen izendapenaren gainekoa zen. Hain zuzen ere, orain arte egindako izendapenak berretsi zituzten.

Hortik aurrerako gaiak Egitamu Orokorrarekin lotutakoak ziren. Hain justu, udalbatzarrak honakoa onartu zuen: Talleres AGAk, Gelmak eta Eroskik Egitamu Orokorraren kontra jarri-

Baseri-auzoetako alkateak

- Meatzerreka nekazari auzoa.....Inazio Zuazubiskar Lopez de Vergara
- Gesalibar nekazari auzoa.....Jose Ramon Askasibar Zendoia
- Uribarri nekazari auzoa.....Jone Bergaretxe Elkorobarrutia
- Musakola nekazari auzoa.....Esperanza Agiriano Altuna
- Garagartza nekazari auzoa.....Karmel Uribarren Munitxa
- Bedoña nekazari auzoa.....Esteban Arana Eraña
- Udala nekazari auzoa.....Martin Uribarren Bengoa
- San Andres nekazari auzoa.....Milagros Arenaza Gabilondo
- Zaldibar nekazari auzoa.....Joseba Lazkanoiturburu Lizarralde

NACIONALISTEN KONTRAKO KRITIKAK
Bozketa egin ostean, EAK aurkeztutako mozioa onartu zuten. PSE-EEren mozioaren kasuan, boto aldetik bederatzinako berdinketa izan zen (PP, PSE-EE eta Ezker Batua alde eta EAJ eta EA kontra). Eta gehiago osoa behar zuten onartzeko. Alderdiko bozeramaile Paco Garcia zera esan zigun: "Alkatearen kalitatezko botoari esker ez du aurrera egin mozioak (...). Eskola publikoaren alde egiten dute nazionalistek, baina gero, praktikan, ez dute hori betetzeko ezer egiten". Gaineratu zuen aspaldiko gaia dela 0-3 urte bitarteko hezkuntzarena; askotan eztabaidatu izan dutela, eta orain arte sekula ez duela aurrera egin. Beti diotela hurrengo ikasturtean hasiko direla hezkuntza mota hori ezartzen.
Bestalde, Jabier Nafarratek EArenean adierazi zigun bere taldea betidanik egon dela eskola publikoaren alde. Baina, Arrasateren kasuan, Haur Hezkuntza publikoa lortzeko Udala implikatu behar hori ez dutela horren garbi ikusten. EArenean, Jaurlaritzari dagokio gai hori. Horrexegatik aurkeztu zutela mozioa.
Bukatzeko, osoko bilkuren artean, besteak beste, Arrasa-

ELKARRIZKETA

NEKANE SAN MIGUEL/EPAILEA

“Bortxakeria fisikoa gertatu aurretik mesprezua, gutxiespena... dago”

ARRASATE IRRATIA

Emakumeek jasaten duten tratatu txarren kontrako eguna izan zen martitzenean. Zoritxarrez, aspaldiko arazoa da hori, eta, gaur egun bizi-bizi dago oraindik. Horren gainean berba egin dugu Nekane San Miguel epailearekin.

Zuretzat tratatu txarren gaia ez da berria izango; epaile izan aurretik abokatu izan zinen...

1976an hasi nintzen abokatu lanean. Lan horretan hasi eta gero topo egin nuen tratatu txarrekin. Nire inguruan halakorik gertatzen zenaz ez nintzen jabetu umetan, nerabezaroan...; banantze kontuak zirela-eta bulegora aurreneko emakumeak etorri zirenean ikusi nuen, eta benetan gogorra pentsatu zitzaidan, oso ohikoa zela tratatu txarren kontua, oso hedatuta zegoela. Eta jendeak pentsatzen badu tratatu txarren kontua pobreen artean ematen dela, ez da egia. Maila sozial guztietan eta lanbide guztietako jendearen artean ematen da, salbuespen barik.

Horrez gainera, hemen ere ematen da halakorik, ezta? Ez Euskal Herrikan kanpo, askok dioten moduan...

Duda barik. Nik Arrasaten eta Eibarren egin dut abokatu lana, eta bietan aurkitu ditut tratatu txarrak. Leku guztietan eta modu guztietan ematen dira. Beste gauza bat da arazo hori kanporatu izan den edo ez.

Kontua da, besteak beste, emakumei beti esan izan zaigula norberari tokatu zaion gizona agoantatu egin behar dugula. Hortaz, emakumeak gizonekiko izan dugun otzantasuna aspaldikoa da. Bestalde, orain dela gutxira arte emakumeek ez zuten inongo baliabiderik euren kabuz ibiltzeko, hortaz, tratatu txarrak-eta agoantatu beharra zeuzkaten. Eta, askotan, emakumei kolpetxo bat ematea ez zen horren gaizki ikusten... Horrela bizi izan gara urte askoan. Adibidez, 80ko hamarkadan, Donostian abokatuen kongresu batean abokatu batek esaten zuen tratatu txarrak emakumeek asmatutakoak zirela, gizonarengandik banatu ahal izateko. Hala, nahiz eta bulegoan tratatu txarrak salatu, askotan salaketa ere ez genuen jartzten, epaile askok sinistu ere ez gintuzten egiten-eta.

Azkeneko urteetan, berriz, izan da aldaketarik. Arrazoiak bat da, duda barik, emakumeek egin dugun borroka eta lana. Izan ere, berdintasunaren bidean ezinbestekoa da tratatu txarren kontua lantzea. Dena dela, nik badaukat kezka bat: ea azken bost urteotan ez den larregitxo berba egin gai horren eta zigorren gainean.



ARTXIBOA

Zergatik diozu hori?

Sartu delako arazo hori kartzela-zigor handiagoekin, zigor handiagoekin... konponduko dela. Azken baten arazo guztien irtenbidea zigorraren bidetik datorrela sinistu eragiteko kultura nagusitzen dabil. Eta halakoekin ez da ezer konpontzen. Bi arrazoiengatik: zigor gehiagorekin ez delako ezer konpontzen; eta zigorra handia edo txikia izan kaltea egin eta gero datorrelako. Nik uste dut jakin beharko litzakeena dela zergatik ematen den egoera hori, eta lehenagotik jarri neurriak gertatu ez dadin.

Hala, gaur egun, batetik, emakumeen egoera hobetu egin da; eta bestetik, lege aldetik ere egon da hobekuntzarik; esaterako, joan den abuztuan biktimak babesteko legea onartu zuten...

Esan beharra dago 99ra arte emakumeak babesteko neurriak ezartzeko zailtasun teknikoak zeudela. Izan ere, mota horretako neurriak norbaiten eskubideen murriztaileak dira. Eta, 99an aurrepauso bat eman da eta oraingo abuztuan borobildu egin da.

Orain, badirudi gizarteak hartu duela tratatu txarren gaierikiko kontzientzia apurra...

Ez dakit zein punturaino. Uste dut momentu honetan dagoen jarrera eta egoera gehiago dela tra-

tu txarrak eragiten dituztenen kontra. Eta, benetan gizarte kontzientziatuta egongo balitz, uste duzu emango litzaketela askotan ematen dituzten moduko pelikulak? Eskoletan askotan gertatzen diren bereizketak gertatuko liratekeela? Edo emakumea gauza bat balitz moduan tratatuko luketela? Pertsona bat zure berdintzat ez baduzu hartzen, non dago pertsona harekiko errespetua? Eta, errespetu falta hori mugetaraino eramanda gertatzen da bortxakeria fisikoa. Baina horren aurretik eta horren inguruan mesprezuak, gutxiespenak... daude.

Zer gomendatuko zenioke emakume eta epaile moduan tratatu txarrak jasaten dituztenei?

Edozein arazori irtenbideren bat aurkitu ahal izateko, lehenengo egin behar den gauza da arazo horri aurre egin. Ikusi arazoa hor dagoela eta arazo horren kontrako neurriaren jabe norbera izan. Duda barik laguntza behar du; salatu egin behar du, baina, horretarako indarra behar du emakume horrek. Indar hori nondik ateratu? Bada, gaur egun gizarte zerbitzuak badaude, emakume horiek ez daude bakarrik, epaitegietan bestelako ikuspegiarekin hartzen da halako salaketa... Emakumeak egin behar dio aurre arazoari.

Errepresioa areagotu egin dela salatu zuten herritar batzuek

UBANE MADERA

Errepresioa areagotu egin dela eta agente armatuen presentzia salatu zuen herritar talde batek. Arrasaten eta, oro har, Euskal Herrian salbuespen egoeran bizi garelako diote. Azken atxilotetak salatu zituzten.

Besteak beste, Saioa Alzua, Gaizka Azkarate eta Igor Letonaren senideak eta lagunak izan ziren prentsurrekoan. Haien esanetan, oso larria da Arrasateko egoera; besteak beste, salatu zuten herri mugimenduan dabilzan kideek hainbat taldetako polizia-agente armatuen presentzia sumatu dutela, gauez deiak jasotzen dabilzala, polizia kontrolak euren atarteetarako iristen direla eta, azkenaldian egiten dabilzan atxilotetak ikusita, inork ez duela bere burua salbu ikusten.

IZAERA PREBENTIBODUN ATXILOKETAK

Horren harira, Saioa Alzuaren eta Gaizka Azkarateren atxiloteten izaera prebentiboa salatu zuten; hau da, delitua egin aurreko atxiloteta. Euren esanetan, delitua egin baino lehen dator zigorra, eta diote horrek ez duela inolako arrazomendu juridikorik.

Era berean, salatu zuten dagoeneko Azkarate eta Alzua kartzelaz aldatu dituztela, bakoitza kartzela batera bidali dutela (Azkarate Navalcarnerora eta Alzua Alcalara), bien elkarbizitza dezentetaz zailduta.

Esandakoaren arabera, azkenaldian atxilotutakoen %80 herri-

mugimenduan ibiltzen diren kideak dira.

Atxilotetez gain, Audentzia Nazionalera deklaratzera joateko gero eta jende gehiago deitzen dutela ere salatu zuten. Adibidez, San Juanetan manifestazio batean parte hartzearen, Lur Pagoagak, Illart Azkaratek eta Mertzan Papi-k Madrilen deklaratu behar izan dutela, Del Olmo epailearen aurrean. Bestalde, jakinarazi zuten antzerako ekimenengatik milaka euro ordaindu behar izan dutela arrasatear askok isunetan.

ALDERDI POLITIKOEI DEIA

Adierazi zuten, era berean, errepresio horren areagotzea garbi ikusten dela azkenaldian egon den guardia zibilen presentziarekin. Adibidez, Herriko Plazan kontrola ipini zutela gogora ekarri zuten, baita Okorotegin ere.

Horrengatik guztiarengatik salbuespen egoeran gaudela uste dute. Eta gauza bera salatzen duten alderdi politikoei dei egiten die egoera hori benetan sala dezaten eta horren aurrean zer-bait egin dezaten.

MANIFESTAZIORAKO DEIA

Bukatzeko, adierazi zuten egoera latza izanda ere, eurek presoen alde lanean segituko dutela, eta horretarako herritarren eta komunikabideen babesa eskatu zuten. Asteburuan Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin zuten. 18:30ean da ekitaldia eta Arrasatetik autobusak egongo dira. Iratin eman beharra dago izena.



GORKA MORIAS

Herri-mugimenduan dabilzan zenbait salatu zuten errepresioa areagotu egin dela.

LABUR

Gabonak datozela-eta bezperak abestuko dituzte San Andresko parrokiari

Abenduan, Gabonak prestatzeko, bezperak abestuko dituzte San Andresko parrokiari. Gabonak arteko zapatu guztietan abestuko dituzte: azaroaren 29an eta abenduren 6an, 13an eta 20an. Ele bitan izango dira bezperak; beti arratsalde, 18:30ean, hain zuzen ere. Parrokiako kideen esanetan, bezperak errezatuz mundu osoko fededunekin bat egiten dute, baita Jesusen etorreraren zain dagoen Elizarekin ere. Hala, kristau guztiak bezperetan parte hartzera gonbidatu gura dituzte.



CORAZON DE ENCINA ELKARTEKO EGOITZAK 10 URTE EGIN DITU

Corazon de Encina Extremadurako kultura elkarteko egoitzak hamar urte egin ditu. Hori dela-eta, ekitaldiz betetako asteburua izan dute. Egubakoitzean, poesia eta idazkera lehiaketak egin zituzten; umeendako jolasak ere izan ziren, eta ondoren, afaria egin zuten. Afalostean, *play-back* jaialdian gura beste barre egiteko aukera izan zuten, eta amaitzeko, elkarteko Isabel, Loli eta Juanak abestu egin zuten. Zapatuan antzerki emanaldia, bazkaria, jokoak... izan ziren. Egitarau zabala izan zuten.



BERTSO-BAZKARI JENDETSUA

AEDk 20 urte egin dituela ospatzeko, asteburuan hainbat ekintza egin zituzten. Horietakoa bat Uarkapen egin zuten bertso-bazkaria izan zen. AEDko lagun asko joan ziren bazkaria, eta giro paregabea izan zen. Esan bezala bertso-bazkaria izan zen; Jon Maia eta Xabier Amuriza bertsolariak bertso ederrak bota zituzten, eta AEDko bertsolariak ere ezuste polita eman zuten. Nola ez, trikiti doinuak ere izan ziren.



SANTA ZEZILIA EGUNA OSPATU ZUTEN ZAPATUAN

Joan den zapatuan Santa Zezilia eguna ospatu zuten Arrasate Musika Eskolakoek, txistulariek, dantzariak, gaitariak eta Goikobaluko kideak. Musika Eskolakoek egitarau zabala antolatu zuten: egubakoitzean kontzertua eman zuten eta zapatuan kalejira egin zuten. Goikobalukoek 20:00ak aldera

txikiteoa egin zuten eta kalez kale eta tabernaz taberna kantuan ibili ziren. Arrasateko txistulariek ere Musika Eskolakoekin batera egin zuten kalejira; hori baino lehenago, baina, Herriko Plazan izan ziren dantza taldekoekin batera. Musikarien patrioiak Arrasaten, behintzat, harro egoteko motiboa du.



OLAIA MONDRAGON

Mondrak estu eta larri irabazi zion Ordiziari, nahiz eta hiru goleko aldearekin gailendu.

FUTBOLA

Mondrak 84 minutu behar izan zituen benetako maila erakusteko

Markagailuko aldeak ez du zelaiari izan zena erakusten, arrasatearrak larri ibili ziren-eta

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan Atxabalpen gertatutakoa azaltzea ez da erraza. Mondrak 4-1 irabazi zion Ordiziari, baina partidua amaitzeko zazpi minutu gertatzen zirenean markagailuak 1-1 erakusten zuen. Azken minutuetan etorri zen gol zaparrada, Mondra jokalaria bat gutxiagorekin zegoenean, gainera.

Mondrak egin behar ez dena egin zuen zapatuan: gola egin eta gero lasaitu, eta kontrarioari norgehiagoka berdintzeko aukera eman. Mondrak nagusitasun handiarekin jokatu zuen lehenengo zatian. Arrasatearrak ordiziarrek baino gehiago izan ziren, eta hasierako minutuetatik bertatik geratu zen hori argi.

Mondrak izan zuen baloiaren jabetza, eta nagusitasun horri esker egin zuen Jon Muruamendiaren partiduko lehenengo gola (1-0). Tamalez, arrasatearrak ezin izan zuten lehenengo zati-

rako partidua erabakita utzi, eta bigarren zatian gogotik ordaindu zuten hori.

BIGARREN ZATIAN, TXARTO

Bigarren zatian Mondra lo zelairatu zen. Arrasateko taldeak beste aurpegi bat erakutsi zuen; lehenengo zatikoarekin alderatuta, erabat ezberdina. Horretaz konturatuta, Ordiziak gora egin zuen. Kanpotarrek partiduko lehenengo gol aukera garbiak izan zituzten. Horrela, 60. minutuan bana-koa egin zuten.

Mondra lehenengo zatian izandako baloiaren jabetza galdu eta kontraerasoan jokatzeko hasi zen. Egoera okertuz joan zen, epaileak Andres aldageletara bidali zuen-eta. Atxabalpera hurbildutako jarraitzaileek nahikoa lan zuten zelaiari gertatzen zena ulertzen, baina zailagoa da azken minutuetan gertatutakoa azaltzea. Mondraren bigarren goleko jokaldia Garmendiak hasi zuen: erdiraketa ona eginda Muruak atzera pasea egin zuen buruaz, eta

aurrelari lanetan zebilen Markel gazteak gola egin zuen (2-1). Gol horri esker lasaitu ederra hartu zuten Mondrako jokalariek, zaleek eta, noski, entrenatzaileak. Norgehiagoka, baina, ez zen horrela amaitu. Bi minutu geroago, 86. minutuan, ezker hegaletik egindako erdiraketa bat Iker Lopezek ondo aprobetxatu zuen (3-1). Hori gutxi ez eta, partidua amaitzeko zegoenean Muruari penaltia egin zioten (4-1). Gol horiek lehenengo egin behar zituen Mondrak, baina helburua bete zuten: hiru puntuak eskuratzea, hain zuten.

KONTRARIO GOGORRA

Mondrak Debako Amaikak Bat taldearen kontra jokatu du asteburuan. Atzeko postuetan dago Amaikak Bat, baina Deban irabaztea ez da batere erraza. Orain dela bi urte neurtu zituzten indarrak azkenekoz bi talde horiek, erregional mailan. Seguru futbol zelaia ez dela egoera onean egongo.

Mondrako neskek ikuskizun polita eskaini zuten Agurainen kontra (9-1)

X.U.

Mondrako neska futbol taldeak erraz baino errazago hartu zuen mendean Aguraingo taldea. Arrasateko neskek 9-1 irabazi zuten, eta eskerrak izandako gol aukera guztiak ez zituztela aprobetxatu, bestela, Aguraingo neskek

nekez jarraituko zuketuen futbollean jokatzeko. Arrasatearrei kosta egin zitzaion lehen gola egitea. Hain zuten, Etxabek egin zuen estreinakoa, eta hortik aurrera: gol zaparrada. Lehenengo zatia 4-0 amaitu zen, eta alde horrekin Mondrako entrenatzaileek hainbat aldaketa egin zituzten. Alda-

keta horien eraginez, Mondrak gutxiago izan zuen baloia, baina eraso hobeto egin zuen.

Oraingo asteko kontrarioa, Urola, ez da joan den asteko bezain talde ahula izango. Mondrako neskek, baina, sasoi onean daudela erakusten ahalegin-duko dira.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Bikain Akademia	8-1
You Know - Rayo Aldeano	3-6
Billy & The Cowboys - AT Celaya	3-6
Iriztu Taberna - Koka Juniors	4-3
Abokajarro - Saukelu Scream	3-8
KPPC - Aloña Taberna	2-17

B MULTZOA

Goma-2 - Dream Team	4-4
Fuxion - Errasti Kristaldegia	3-6
El Equipo A - Whiskeria	7-5
Dribling - Tomahawk	2-2
Lasagabaster - Speed Boys	5-3

PARTIDUAK

AZAROAK 29, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Dribling - Lasagabaster.	Betrayer
11:00: Betrayer - Rayo Aldeano.	Lasagabas.
12:00: Alpagat-Estut. - Aloña Tab.	Rayo Al.
13:00: You Know - Koka Juniors.	Aloña Tab.
14:00: El Ekipo A - Speed Boys.	Koka Jun.
15:00: Goma-2 - Whiskeria.	Speed Boys.
16:00: Iriztu Tab. - Saukelu Scre.	Whiskeria
17:00: Abokajarro - KPPC.	Iriztu Taberna

AZAROAK 30, DOMEKA

11:00: Fuxion - Tomahawk.	Errasti Kristal.
12:00: Etxerat - Errasti Kristald.	Tomahawk
13:00: AC Surcos - Dream Team.	Etxerat

Deskantsua: Billy & The Cowboys, AT Celaya, Bikain Akademia.

BERANDU DABILTZANEK ORDAIN DEZATELA!

URTEA AMAITU AURRETIK ORDAINDU BEHARKO DUTE

Zaldibarko Txapelketan izena eman zuten talde askok oraindik ez dute ordaindu. Urteroko kontua da: herriko txapelketa denez eta herrian guztiak elkar ezagutzen dutenez, talde askok ordaindu gabe ematen dute izena. Gero, antolatzaileek talde horien atzetik ibiltzen dira, ordaindu gabe jokatzeko dabiltzala gogorarazten. Behin baino gehiagotan pasatu da ordaindu gabe jokatzeko hasi eta lehenengo jardunaldietan beste arrazoi batzuegatik talde hori kanporatzea. Antolatzaileendako buruhauste galanta; izan ere, txapelketa fundamenturik gabe hasteagatik kanporatua izan den taldeak ez du ordaintzeko gogo handirik izango. Horregatik, ordaindu ez duten taldeek Gabonak baino lehen ordaindu beharko dute. Antolatzaileek argi utzi gura dute datorren urterako ordaindu ez duten taldeek zigorra jasoko dutela.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Amaikak Bat - Mondra
Preferente. Zapatuan. 15:45. Deban.
Mondra - Mariño
Ohor. gazt. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
Ikasberri - Arrasate
Big. gazt. Zapatuan. 13:00. Azpeitin.
Arrasate - Kostkas Miren
Ohor. kadet. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate B - Aretxabaleta B
Big. Kadet. Domekan. 09:45. Atxabalpen.
Bergara - Arrasate
Infantilak. Domekan. 11:00. Ipintzan.
Mondra - Urola
Neskak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

ESKUBALOA

Usurbil - AGR Arrasate
Lehen territ. Domekan. 11:00. Olardon.
Arrasate C - Arrasate B
Big. territ. Zapatuan. 17:45. Iturripen.

Gatz Museoa - Urola Lazti

Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
Donibane - Gatz Museoa
Gazteak. Zapatuan. 18:30. Donibanen.

SASKIBALOA

Erro y Eugi - Ointxe Arrasate
Seniorrak. Domekan. 11:30. Iruñean.
Arrasate - Argysan Tolosa
Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
Arrasate - Aloña Mendi
Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Arrasate - Durango
Kadeteak. Zapatuan. 10:30. Garagartzan.
Arrasate - Zarautz
Gazteak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

**LIA ALTUNA
BEGOÑA LASAGABASTER**
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Dagoeneko ume guztiak dabilta Arrasate Kirol Proiektuko ekintzetan buru-belarri

Koordinatzaileek ikasturte hasieraren balorazio baikorra egin dute, besteak beste, umeen partaidetzak gora egin du-eta

XABIER URZELAI

Arrasate Kirol Proiektuan murgilduta dauden taldeak dagoeneko jo eta ke dabilta. Arrasateko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikastetxeen bateratze prozesua dela-eta, koordinatzaileek balorazio baikorra egin dute; bateratze prozesu arrakastatsua izan da.

AKPren oraingo ikasturteko erronka handienetako bat Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikastetxeen bateratze prozesuari aurre egitea zen. Lehenengo hilabeteak pasatuta, AKPko koordinatzaileek balorazio baikorra egin dute.

PARTIDUETAN GIRO ONA

Dagoeneko jo eta ke dabilta talde guztiak; izan ere, lehenengo kirol ekitaldiak urriaren 18an hasi zituzten. Multikirolean dabil-tzan 10 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei saskibaloian jardun dute orain arte eta 8 eta 10 urte bitarteko aurre-kiroleko gazte-txoek, berriz, eskubaloian egiteko aukera izan dute. Saskibaloiko partiduak Almenen jokatu dituzte eta eskubaloikoak, berriz, Iturrieko eta Musakolako kantxetan, hain zuzen ere.

Arrasate Kirol Proiektuko koordinatzaileen esanetan, multikiroleko eta aurre-kiroleko nor-



AKPko kirol ekintzetan dabilen Gazteluondo guneko talde bat.

gehiagoketan giro paregabea izan da. Guraso asko joan dira seme-alaben partiduak ikustera, eta kanpoko taldeen kontra jokatu dutenez, gaztetxoak motibatuta ibili dira. Aipatzekoa da, era berean, Almen gunean saskibaloian

jokatzeko lau kantxa daudela. Horri esker, multikiroleko jardunaldiak ikusgarriak izan dira.

BESTE KIROL BATZUETAN HASI DIRA

Aurre-kiroleko eta multikiroleko neska-mutikoei dagoeneko amai-

tu dituzte saskibaloiko eta eskubaloiko ekintzak. Gabonak bitartean, atletismoari eta esku pilotari helduko diete. Horrela, AKPko gaztetxoek bi kirol horiek hobeto ezagutzeko aukera izango dute. Arrasate Kirol Proiek-

*Kanpoko taldeen
kontra jokatu
dutenez, umeak
motibatuta
ibili dira*

*Kirol bakarra egin
beharrean, ahalik
eta kirol gehien
egitea da
helburuetako bat*

tuaren helburuetako bat da gaztetxoek ahalik eta kirol gehien egitea, kirol bakarra egin beharrean. Horrela, nagusiagoak direnean, norberak gehien atsegin duen kirola aukeratu ahal izango du. Kirol bat baino gehiago egiteko aukera izango dute.

Azkenik, esan beharra dago aurre-kiroleko eskubaloiko txapelketan hauek izan direla irabazleak: hirugarren mailan, Aretxabaletako Kurtzetxanpions izan da onena eta laugarren mailan, Arrasateko Gazteluondo C taldeak erakutsi du abilezia handien.

Ointxe Arrasate igoera faserako sailkatzeko ia aukera gabe geratu da

X.U.

Ointxe Arrasate Saskibaloitaldeak bigarren postuan zegoen Paduraren bisita izan zuen zapatu arratsaldean. Arrasatekoek bazekiten talde gogorra zettorrela, eta hala izan zen (85-98).

Sailkapenean gora egiteko Ointxe Arrasatek garaipena behar zuen. Mondragoeko taldeko jokalariek, baina, bazekiten bigarren postuan dagoen Padura taldearen kontra irabaztea ez zela gauza erraza izango. Gorka Zurutzaren mutilak ahalegindu ziren, baina kontrarioak erakutsitako maila ona eta epaileen erabakiek erabakita utzi zuten guztia. Zapatuko porrotarekin Ointxe Arrasate igoera faserako sailkatzeko ia aukera barik geratu da.

Ointxe Arrasate Saskibaloitaldeari kostatu egin zitzaion partiduan sartzea. Horrela, lehe-

nengo minutuetan kanpotarrek 15 puntuko aldea eskuratu zuten. Eta, behin hori ikusita, Ointxek sekulako astindua jasoko zuela zirudien.

ALDEA TXIKITU EGIN ZUTEN

Ez zen, baina, horrela izan, Arrasateko taldeko mutilak esnatu egin ziren-eta. Goiko postuetan dagoen kontrarioa izan arren, Ointxeok ez ziren kikildu: partiduan sartu, eta kanpotarrek lortutako aldea txikitu egin zuten. Hala, lehenengo laurdena amaitu zenean, Padurak bi puntuko

aldea baino ez zuen (22-24). Bigarren laurdenean kanpotarrek aldea handitu zuten (45-52), baina hirugarren laurdenean hasierako minutuetan Ointxek berdindu egin zuen norgehiagoka (62-62). Padurak, baina, berehala egin zuen aurrera (68-72), eta laugarren laurdenak erabaki zuen partidua.

Zeingehiagoka amaitzeko lau minuturen faltan, Ointxe Arrasatek berriro ere berdindu zuen; orduan, baina, epaileak Arrasateko taldeko entrenatzaileari falta teknikoa adierazi zion. Minutu erabakigarriak izan ziren, baina kanpotarrek hainbat jaurtiketa libre izan zituzten, eta horiek ondo aprobetxatuta nagusitu ziren (85-98). Oraingo asteburuan, Ointxe Arrasatek Nafarroa aldera joan beharko du, Erro y Eugi taldearen kontra jokatzera. Sailkatzeko aukera txikia bada ere, Ointxe Arrasatek ezin du amore eman.

*Azken minutuetan
jaurtiketa libreak
aprobetxatuta
nagusitu zen
Padura taldea*



Jagoba Gamarrak 22 puntu egin zituen zapatuan, eta Gorka Kintanak 24.

ESKUBALOIA

AGRk talde makalenaren kontra amaitu du bolada ona; 21-20 galdu zuen Leizaranen

Arrasateko mutilek ahazteko moduko partidua jokatu zuten azkeneko postuan zegoen Leizaran taldearen kontra

XABIER URZELAI

Lehen territorial mailako liderra izateko aukera paregabea galdu zuten joan den asteburuan Pitxi Herreroren mutilek. Kontrario makala zuten aurrean, baina arrasatearrek inoiz baino huts gehiago egin zituzten.

AGR Arrasatek bigarren postuan jarraitzen du, baina lehenengo postura jauzi egiteko aukera ona galdu du. Joan den astean, Arrasateko taldeko jokalariek ez zuten euren maila erakusterik izan: gaizki ate azpian, gaizki defentsan eta gaizki erasoan. Eta, hala ere, gol bateko aldeagatik baino ez zuten galdu.

Norgehiagokako lehenengo minutuak ikusi zituenak azkar esango luke partiduan nor nagusituko zen. Ondo hasi ziren mondragoetarrek. Horrela, zortzigarren minuturako AGR aurretik zen markagailuan (1-5). Orduan, baina, Eneko Garcia arrasatearrek min hartu zuen; bihurritua

egin eta berehala handitu zitzaion orkatila. Enekoren lesioak uste baino eragin handiagoa izan zuen taldean. Jokalariak harrituta geratu ziren lesioarekin, eta kontzentrazioa erabat galdu zuten; Leizaranek gora eginda aldea txikitzea lortu zuen. Eta lehenengo zatia amaitu zenerako AGRk gol bateko aldea baino ez zuen (11-10).

Bigarren zatian gauzek txarrerera egin zuten; AGRk erraztasun larregi eman zituen: kontraerasoetan gaizki, gol aukera garbietan kale egin, penalti jaurtiketetan asmatu ez... Aukera horiek emanda ere, Leizaran ez zen markagailuan aldendu. Azken unera arte Arrasateko taldeak partidua irabazteko aukera izan zuen, baina mondragoetarrek azkeneko minutuetan ere ez ziren esnatu.

Oraingo asteburuan, AGRk partidu erabakigarria jokatu du lehenengo postuan dagoen Usurbilen kantxan. Mondragoetarrek talde makalenaren kontra galtzeko gai dira, baina liderra mendean hartzeko gai ere badira.



OLAIA MONDRAGON

AGR Arrasatek Usurbil izango du oraingo astean kontrario; oraingo asteburuan ere mondragoetarrek kanpoan jokatu dute.

Lazkano eta Bolinaga pilotariak bi txapelketatako final atarietan

X.U.

Lazkano atzo, eguena, ilunkean jokatzekoa zen finalerako sailkatzeko azken partidua. Ezin emaitza eman, lerro hauek partidua baino lehenago idatzi behar izan ditugu-eta. Oraingo domekan, berriz, Ibai Bolinagak Arronizko Txapelketako finala jokatu du.

Arrasateko bi pilotari sasoi onean dabilta: Aitzol Lazkano eta Ibai Bolinaga. Lazkano Amezetako taldeko Mintegia pilotariaren kontra jokatzekoa zen; taldekako txapelketako finalerako sailkatzeko azken partidua zuten jokoan. Datorren astean emango dizuegu norgehiagoka horren berri.

Joan den astean, Atano III.a pilotalekuan Lazkanok jipoi ederra jaso zuen (22-5). Zaldibiako Gurrutxaga pilotariaren kontra neurtu zituen indarrak, eta Zaldibiakoa hobeto ibili zen. Arrasatearrari asko kosta zitzaion partiduan sartzea; eta lehenengo tantoa egin zuenerako, partidua ia erabakita zegoen.



ARRASATE PRESS

Lazkanok Amezetako taldeko Mintegia izan zuen atzo kontrario.

Mondragoeko pilotari gazteak urtarriletik hona 13 txapelketa irabazi ditu. Nafarroan: Iruñean, Irurtzunen, Ugarten, Zizurren, Altzuzan eta Etxarri-Aranatzen; Araban: Gasteizen, Zaramagan eta Lapuebla de Labarcen; Bizkaian: Berrizen; eta, Gipuzkoan: Alkizan, Eskola Arteko Txapelketan eta Arrasateko San Juanetako Txapelketan eskuratu du txapela. Oraingo asteburuan hamalagarren txapela izango

du jokoan, Arronitzen, Nafarroan. Hamahiru txapelketa horietatik lau txapelketa bikoteka irabazi ditu, eta Iker Agirregabiria mondragoetarra izan da bere bikotekidea. Bi pilotari horiek gazteak izan arren maila polita erakusten dabilta.

Laster, gainera, Arrasaten jokatu duen Santo Tomasetako Pilota Txapelketan jokatu dute; arrasatearrek herriko pilotariak ikusteko aukera izango dute.

FOTOKIROLA



Arrasate jaun eta gabe Garagartzan (45-0)

Arrasate Errugbi Taldeak 45-0 irabazi zion Durangori. Joan den astean Zarautzen kontra galdu eta gero, mondragoetarrek bazekiten garaipena beharrezkoa zela. Durangok, baina, uste baino lan txikiagoa eman zuen. Arrasate jaun eta jabe izan zen Garagartzako zelaian, eta bizkaitarrak ahal zuten moduan eusten ahalegindu ziren. Igoera faserako sailkatzeko bidean, mondragoetarrek bide onetik doaz. Badirudi Zarautz dela maila horretako kontrario gogor bakarra. /X.U.

INFANTILETAN, MAILA ONEKO PILOTARIAK
Ibai Bolinaga gazteak, berriz, oraingo domekan jokatu du Arronizko Txapelketako finala.

MUSIKA/ Izaskun Murgia elkarte lirikoak 'Luisa Fernanda' zarzuela egingo du

Arrasateko Musika Eskolako orkestra sinfonikoak zarzuelan hartuko du parte

IKER BARANDIARAN

Abenduaren hasieran, Izaskun Murgia elkarte lirikoak *Luisa Fernanda* zarzuela egingo du. Berrikuntza nagusi moduan, aurtan, Arrasateko Musika Eskolako orkestra sinfonikoak hartuko du parte. Dagoeneko, aktoreak eta musikariak entseatzeko dabilta.

Izaskun Murgia elkarte lirikoak lanean dabil berriro. Abenduaren hasieran Francisco Moreno Torrobaren *Luisa Fernanda* zarzuela egingo dute, Arrasaten, Amaia Udal Antzokian. Geroago eta lagun gehiagok hartzen dute parte Izaskun Murgia elkartearen ekimenetan. Besteak beste, hainbat jostun arrasatearrek egin dituzte lan horretan erabiliko dituzten bi eszenatokiak eta jantzi guztiak.

ARRASATEKO MUSIKARIAK

Aurtan, lehenengo aldiz, Arrasateko Musika Eskolako orkestra sinfonikoak hartuko du parte Izaskun Murgia elkarte lirikoaren zarzuela baten. Orkestra

osatzeko 40 musikari horiek entseatzeko gogor dabilta, eta Alfredo Gonzalez Chirlaque bergararrak zuzenduko ditu. Esan beharra dago zuzendariaren gain musikari batzuk ere bergararrak direla.

Zarzuela hori lau egunetan antzeztuko dute, Amaia Udal Antzokian: abenduaren 13an, 14an, 19an eta 20an, hain zuzen ere. Laster ipiniko dituzte sarreak salgai.

Besteak beste, honako abeslariak hartuko dute parte *Luisa Fernanda* zarzuelan: Amaia Zubiria (*Luisa Fernanda*), Enrike Altuna (*Javier*), Mertxe Salaberri (*Mariana*), Luis Okina (*Don Florito*), Igor Ganboa, Gurendane Gonzalez, Mikel Balantzategi, Cristina Cubillo, Mikel Izurrategi, Iñaki Olaizola, Alex Garitano eta Josetxo Urrutiak.

Tere Gonzalez da Izaskun Murgia elkarte lirikoko zuzendaria. Eszenako zuzendaria, ostera, Javier Burgos da.

Laster ipiniko dituzte salgai zarzuelako sarreak, ohiko lekuetan. Informazio gehiago jaso ahala, aditzera emango dizuegu.



Arrasateko eta Bergarako musikariak gogor entseatzeko dabilta, Chirlaque zuzendariaren agindupean.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

ANTZERKIA/ Taun Taun antzerki taldeak umeentzako 'Galtzerdia' lana egingo du

Galtzerdi inkonformista baten istorioa kontatuko digute bihar

I.B.

Bergarako Taun Taun antzerki taldeak izen handia dauka, eta aspaldi ez da Arrasatera etorri. Bihar, zapatua, *Galtzerdiak* lana aurkeztuko digu. Batez ere, umei zuzenduta dago eta bizimoduz aldatu gura duen galtzerdi inkonformista baten istorioa kontatuko digute.

Bihar, zapatua, Taun Taun antzerki taldeak umeentzako ikuskizun aproposa eskainiko du. 17:00etan egingo dute, Amaia Udal Antzokian. Taun Taun taldeko kideak umeentzako ikuskizun bat egiteko gogoz zeuden. Idazle euskaldun baten lanean oinarritu gura zuten, eta Mariasun Landa idazlearen *Galtzerdi suizida* liburua aukeratu zuten.

Orain dela bederatzi hilabete, liburu horren istorioa antzezlanerako egokitzen hasi ziren. Behin kontatu gura zuten istorioa zehaztuta, orain dela hiru bat hilabete, panpinen mugimenduak zehazten eta panpinak eurak egin hasi ziren.

Panpinak Iñaki Matak egin ditu. Diseinu batzuk, ostera, Naiara Errastik egin ditu. Antzezlan

hori urriaren erdialdean estreinatu zuten, Bergarako Zabalotegi aretoan. Oso harrera ona izan zuen. *Galtzerdia* antzezlanean hiru lagunak hartzen dute parte: Itsaso Azkaratek, Iñaki Matak eta Karlos Odriozolak aktore lanak egiten dituzte eta panpinak maneiatzen dituzte. Horiez gain, Santi Ezkurrak teknikari lanak egiten ditu. Antzezlanean musika orijinala da, eta Koldo Lizarraldekin egin du.

UMEENTZAKO OSO ISTORIO APROPOSA

Taun Taun taldeko zuzendari Itsaso Azkarateren esanetan, *Galtzerdi suizida* oso liburu berezia da: "Mariasun Landak asko maitatu du liburu hori, eta gub ere bai. Istorioak umeen kontua dirudien arren, edonork ikas dezake hortik, baita helduek ere. Liburua irakurtzeko gonbidapena egin dizuet".

Protagonista galtzerdi bat da. Plinio posta-langilearen hankan bizi da, anaiarengandik oso gertu. Egun baten, bizimoduz aldatzea erabakiko du, eta leihoan zintzilik dagoela, kanpora salto egingo du. Hortik aurrera, hainbat pertsonaia ezagutuko ditu (arratoi bat, ume bihurri batzuk, beste galtzerdi bat, maisu bat, eta abar...) eta


oso bizipen bereziak izango ditu. Ordura arteko bizimodu aspergarria abentura bilakatuko da. Leihotik salto egiteari esker, haren bizimodua zeharo aldatuko da.

Antzezlanean hiru gizakik hartzen dute parte: Plinio posta-langileak, Clotilde kale-titirite-roak eta maisu batek. Panpina bihurtutako hiru aktorek pertsonaia horiek irudikatuko dituzte taula gainean.

Taun Taun taldeko Itsaso Azkarateren esanetan, ikuskizun horren ikusle aproposenak bost urte baino gehiago dituzten umeak dira. "Txikiagoak ere etorri ohi dira eta ondo pasatzen dute, baina ez dute dena ondo ulertzen".

Taun Taunek umeentzako egin duen hirugarren lana dugu. Aurretik, *Txio-txioka* eta *Lau eta lorea* egin zituen. Horrez gain, helduentzako beste hainbat antzezlana egin izan dituzte. Eta dagoeneko zarpigarrena izango dena prestatzen hasi dira.

Galtzerdia antzeztu duen bigarren aldia izango da Arrasatekoa. Beste herri batzuetara joateko asmoa dute, jakina. Lan hori euskara hutsean prestatu dute, baina etorkizunean gaztelaniara moldatzeko asmoa dute.



Taun Taun taldearen eskutik, umeentzako *Galtzerdia* ikuskizuna.

TAUN TAUN

MUSIKA / Arrasateko II. Cante Flamenko Jaialdia

Al-Andalusek Arrasate eta flamenkoa lotzen dituen bigarren jaialdia antolatu du

IKER BARANDIARAN

Al-Andalus elkarteak Arrasateko II. Cante Flamenko Jaialdia antolatu du. Bihar, zapatua, lehenengo finalerdia egingo dute, Al-Andalus elkartearen. Finala, berriz, urtarrilaren 31n egingo dute Amaia Udal Antzokian. Iazkoak baino maila handiagoa izango du.

Joan den eguaztenean, Al-Andalus elkarteak Arrasateko II. Cante Flamenko Jaialdia aurkeztu zuen. 2002ko jaialdia oso arrakastatsua izan zen -besteak beste, jaialdiaren finalean, Amaia Udal Antzokia bete egin zuten- eta lagun askok aurten beste jaialdi bat antolatzeko animuak eman dizkiete.

ALDAKETAK ETA HOBEKUNTZAK

Al-Andalus elkarteak ordezkariek zera azpimarratu zuten: elkarteak iazko jaialdiko kostuaren %100 finantzatu zuela. Aurten, ostera, beste erakunde batzuek -Udalak, Kutxak eta beste batzuek- aurrekontuaren %40 finantzatu dute. Esan beharra dago jaialdiaren aurrekontu osoa 10.750 eurokoa dela. Al-Andalus asmoa da etorkizunean Udalak jaialdia oso-osorik finantzatzea. Dagoeneko egin dute eskera hori, baina ez dute jaso ez horren aldeko ezta aurkako erantzunik ere. Hala ere, Udaletik jaso duten laguntza eskertu gura dute.



Al-Andalus elkarteak ordezkariek esanetan, Cante Flamenko Jaialdi hori da urtean egiten duten ekimen garrantzitsuenak.

Espainiako Estatuko herrialde askotako lehiakideak etorriko dira: Cadiz, Malaga, Almeria, Kordoba, Badajoz, Jaen, Logroño, Santander... Horrez gainera, parte-hartzaileen %39 Euskal Herrikoak dira.

Elkarteak eta babesleek bost sari emango dituzte. Lehenengo-

ari dirua eta urrezko eta zilarezko garaikurra emango dizkiote. Garaikurrean Arrasateko Portaloia irudikatu dute, herriko armariarekin, eta haren azpian jarleku bat eta gitarra espainola. Al-Andalusko ordezkariek esanetan, garaikur horrek Arrasateko herriaren eta fla-

menkoaren arteko harremana sinbolizatzen du. Kordobako urregileek egin dute. Bigarren eta hirugarren sailkatuek dirua eta bereziki egindako pitxer batzuk eskuratuko dituzte. Baina badira beste sari batzuk ere: batetik, Euskal Herriko elkarte andaluziarren federazioak Euskal Herri-

ko flamenko-kantari onenari emango diona. Bestetik, Al-Andalus elkarteak Joan eta Etorriko Cante (Hego Amerikara jo zuten andaluziarrek flamenkoa nahastuz sortu zutena, guajirak, kolonbiarrak...) onena egiten duenari sari berezia emango diote.

BIHAR, LEHENENGO FINALERDIA

Bihar, zapatua, lehenengo finalerdia egingo dute. Al-Andalus elkartearen izango da, 23:00etan, eta sarrera doan izango da. Kordobako, Santanderko, Quintanako, Barakaldoko eta Abadiñoko sei flamenko-kantarik hartuko dute parte.

Bigarren finalerdia 2004ko urtarrilaren 10ean egingo dute, eta hirugarrena urtarrilaren 17an. Biak hala biak Al-Andalus elkartearen egingo dituzte. Finala, ostera, urtarrilaren 31n izango da, eta Amaia Udal Antzokian egingo dute.

Al-Andalus gitarrista bat kontratatu du jaialdi osorako. Bera Alejandro Martin da. Santanderkoa da eta izen handia dauka flamenkoaren esparruan. Hala ere, edozein parte-hartzailek gitarrista ekarri gura badu, ez diote inolako oztoporik ipiniko.

Urtarrilaren 31n finala egingo dute eta, iaz bezala, Amaia Udal Antzokia bete egin gura dute. Canal Sur eta ETBekin harremanetan daude, ekitaldia graba dezaten, eta Carmen Linares abeslaria gonbidatu dute.

LABUR

Nazioarteko XI. Akordeoi Lehiaketak antolatu dituzte

Euskal Herriko Hauspoz Akordeoi elkarteak Nazioarteko XI. Akordeoi Lehiaketak antolatu ditu. Joan den eguaztenean aurkeztu zituzten lehiaketak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean.

Lehiaketa horiek ospe handia hartu dute eta urtero atzerriko musikari oso famatuak etorri ohi dira. Hauspoz elkarteak antolatzen ditu, Arrasateko Udalaren laguntzarekin.

Nazioarteko lehiaketa horrekin batera, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa ere antolatu dute.

Lehiaketa hori abenduaren 4tik 8ra egingo dute, Amaia Udal Antzokian. Abenduaren 6an, udaletxean harreman ofiziala egingo diete eta abenduaren 8an, klausurak ekitaldia egingo dute.

Eraso eta Lau taldeak gaztetxean

Bihar, zapatua, Eraso eta Lau musika taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean. 22:30ean izango da eta hiru euro kostatuko da.

Musakolako musika talde gazte bat da Lau. Gazte batzurrekoek iragarri dute ustekabe atsegina izango dela.

Eraso Zarauzko metal taldea da. Orain dela gutxi, hirugarren diskoa kaleratu du, *Grisez bustitako egunak*. Aurreko biak Mil A Gritos diskoetxearekin atera zituzten. Azken hori, ostera, Metak diskoetxearekin egin dute.

Diskoa Zarauzko Fideleonean grabatu dute, Mikel Kazalisen estudioan. Mikelek berak ekoiztu du lana Nahasketak, ostera, Haritz Harreguyk egin ditu Andoingo Garate estudioan. Eraso taldeak kontzertu indartsuak eman ohi ditu! /I.B.



BEHEKODENDATIK

Juan Pedro Mendizabal

MADINA ZURAK

XABIER URZELAI

Juan Pedro gaztetatik hasi zantion taillerrien lanien. Hasieran, udan bakarrik egiten euen lan, baiñe lanbide hori gustetan jakola ikusitue, ikasketak itxi eta lanien hasi zan. Tio hil zanian, familixiek tailerra saldu eutzen: "Bidie egindde itxi eustien, eta nik aurrera egin dot". Oin, tailler barrixe egin daue, Markuleten.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Ortuzain.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Ez, galdute ibilliko nitzake.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Onerako edo txarrerako, baiñe bazterrak mobidu dittu.

Drogak legalizauko zeuke?

Duda barik.

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Beste edozein lanbide modukue da.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

El hijo de la novia / Crimen y castigo / Danetik entzuten dot.

Nora juengo zitzake gustora?

Ameriketako Estatu Batuetara juengo nitzake gustora.

Bizio bat?

Asko dauket, baiñe txikiñek danak.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Bai. Edozein leku da ona.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Fregetie.

Jateko gustoko zerbait? Eta edateko?

Jateko, dana gustetan jat; edan be, danetik... Zumuek ez jat gustetan, eta whiskyxe be ez.

Zerk arduraketan zau?

Enpresa hau ondo juetiek.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Sekule be ez dot pentsau horrelakorik egittie.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Konstantie izetie.

Ze irakurriko zeuke gustora



"Egurre saltziez gain, karpinterixa lanak be egitten dittugu; gehixenbat enpresendako"

ARRASATE PRESSen?

Gura beste lan dauela.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Pentsetan dot protestak egitteko badauela lanuztie baiño modu hoberik. Ez nau lanuztien kontra, baiñe ez jat pentsetan gauzak egitteko modu onena.

Ze egitten dozue Madinan?

Egurre saltziez gain, karpinterixa lanak be egitten dittugu; gehixenbat enpresara zuzendute. Hala eta be, partikularrendako be egitten dogu lan.

Bizkaia etorbideetik Markuletera: hobeto?

Bai. Bizkaia etorbideko tailerra txiki geratu zan, eta oin tailler

"Leku askotatik ekarten dogu egurre, baiñe Europakue ibiltten dogu gehixen"

haundixe egin dogu; lanerako leku haundixae, ganorazko ofiziñak...

Nundik ekarten dozue egurre?

Leku askotatik; Indonesiatik eta Afrikatik, adibidez. Gehixen ibiltten dogun egurre, baiñe, Europakue da.

Eta hamen ze egur klase dau?

Hamen piñue dau, *Insignis* piñue. Ez da egur txarra, egur txarrik ez dau-eta. Hori bai, klase bakotxa gauza baterako da.

Egurren gainien berbetan gabitzela; egurre emutekotan norbaitti, zeine?

Ez nau iñori egurre emuteko moduen. Seguru, emun baiño gehixau jaso egingo neukela.

NIREBIDAIAHURA/ Alaitz Morras

Nikaragua / 2003ko urtarriletik maiatzera arte

J oan den astean, Alaitzen eskutik Nikaraguako egoera gertuagotik ezagutzeko aukera izan zenuten. Nereak, Olatzek eta Alaitzek boluntario lanak egin zituzten Movimiento Comunal Nicaraguenseko eskoletan. Egun, Alaitzek Haur Hezkuntzan egiten du lan: "Askotan pentsatu izan dut zer gertatuko zen hango ume bat hemengo eskola batera ekarriko banu. Izan ere, hemengo eta hango umeak hain dira desberdinak..."

Umeekin bizitako esperientzia gogorra bezain aberatsa izan zen; eskolak emateaz gain, baina, beste gauza asko egin zituzten Nikaraguan. Asteburuak bidaiatzeko aprobeztatzen zituzten: "Autobusak oso txarrak dira, eta errepideak txarragoak, baina edozein lekutara joan daiteke autobusez". Arrasateko eta Aramaioko hiru lagunak Pazifiko eta Atlantiko aldean egon ziren: "Oso ezberdinak dira bi aldeak; Atlantiko aldean ingelesez egiten dute berba; Pazifiko aldean, berriz, espainolez".


Nereak, Olatzek eta Alaitzek turista bisa zeukaten, eta hiru hilabete pasatu eta gero, Costa Ricara joan behar izan zuten bisa berritzera. Anekdoten ganean galdetzerakoan, Alaitzek badu zer kontatu: "Aste Santua bidaiatzeko aprobeztatu genuen. Behin baino gehiagotan txalupan ibili ginen, eta horrelako bidaiata batean, San Juan errekan behera gindoazela, ur gutxi zegoelako txalupak hondoa jo zuen. Txalupatik jaitsi eta bultzaka hasi ginen. Hasieran barre egiten genuen, baina zazpi orduko bidaiata 17 orduan egin genuen, eta azkenerako ez geneukan barre egiteko gogo handirik. Horrez gain, behin baino gehiagotan ederki sartu ziguten ziria, baina horrelakoetatik ere ikasi egiten da". Ez dago ikasteko modu hoberik.



"Asteburuak eta jaiegunak bidaiatzeko aprobeztatzen genituen"

"Behin baino gehiagotan sartu ziguten ziria; horrela ikasten da"

XABIER URZELAI



Laguna de Perlas-en egindako argazkia, Atlantiko aldean.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegiaLeihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiakErakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20Mobiliario
ARENZA- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETABizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ZAHARREN ETXETIK



90 urtetik gorako erretiratu mordo bat zen Abaroako elkarteko batzarrak antolatutako omenaldian.

IKER BARANDIARAN

90 urtetik gorako Abaroako bazkideei omenaldia egin zieten

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Abaroako erretiratuen elkarteko batzarrak omenaldia egin zien elkarteko bazkide diren 90 urtetik gorako erretiratuari. Ezagun da bizi-itxaropena handituz doala, eta Arrasaten ere beste horrenbeste gertatzen da. Izan ere, aurten Abaroako 58 bazkidek 90 urte baino gehiago dituzte. Horietatik 42 emakumezkoak dira eta 16 gizonezkoak.

58 lagun horietatik, guztiek ezin izan zuten Abaroan egin zuten ekitaldian parte hartu. Batzuek osasun arazoak dituzte eta beste batzuk ez dira sarri kalera irteten. Arrazoi horregatik, erretiratu batzuen senitartekoei omenaldia emateko opariak jaso zituzten.

Inor ez dadin nahastu, esan beharra dago han omendu zituzten 58 lagunak Abaroako elkarteko bazkideak direla. Herrian erretiratuen beste hiru elkarte daude, eta horiez gain beste hainbat erretiratu ez dira inongo elkar-

teko bazkide. Beraz, egin kontu 90 urtetik gorako zenbat erretiratu egongo ote diren!

AGINTARI ETA LAGUN EZAGUNAK

Ekitaldi hori joan den martitzenean egin zuten eta, ohiko duten moduan, Abaroako, Udaleko eta bestelako ordezkariak hartu

zuten parte: Abaroako presidentea Juan Luis Lizarralde, Udaleko zinegotzi Andoni de Bedialaneuta, Udaleko Gizarte Saileko arduradun Iñigo Garitano, San Juan Bataiatzailea elizako parroko Genaro Lekuona eta Abaroako idazkari Jose Rivierek.

Bostek erretiratu arrasatearren osasuna eta kementa gorai patu, eta eskerrak eman zizkieten herriaren alde egin duten lanagatik. Are gehiago, Genaro Lekuona parrokoak halako adinera sasoi horretan heltzea oparia dela nabarmendu zuen.

Aurkezpena egin ostean, erretiratu bakoitzari bonboiak eta beste opari batzuk eman zizkieten. Erretiratuek gustura hartu zituzten opariak, eta omenaldian esku hartu zuten agintarien esanek txalotu egin zituzten.

Abaroako emakumezko nagusia Antonia Jauregi Leibar da. 2004ko urtarrilean 98 urte beteko ditu. Antonia oso osasuntsu dago eta ekitaldian adi egon zen. Gizonezko nagusienak, Alejandro Martin Lazarok, 94 urte ditu, baina ez zen ekitaldira joan.

Bizi-itxaropen handiagoa

Omenaldian batu ziren lagun guztiek gauza bera azpimarratu zuten: **Abaroan batutako 90 urtetik gorako lagun kopuru oso handia izan zela. Kontuan hartuta han batutakoak elkarteko bazkideak zirela, herrian halako zenbat lagun egongo diren gogoeta egin zuten. Urte askotarako izan dadila eta osasunarekin bete ditzatela!**

LABUR

Uribarri elkarteko bazkideei etxera bisitak egin eta laguntasuna eskaintzeko ekimena

Uribarriko erretiratuen elkarteak ekimen berezia ipini du abian. Elkarteko batzarrak erabaki du gaixo dauden edo kalera irteten ez diren bazkideei etxera bisitak egitea.

Lehenik eta behin, gaixoei eta horien senitartekoei batzarrak duen asmoa azaldu eta bisitak egiteko baimena eskatuko diete. Behin hori eginda, elkarteko boluntarioen artean hiru talde osatu dituzte. Boluntario horiek ez dute ordu kopuru zehatzik sartu behar, eta gura dutenean egingo dituzte bisitak.

Ekimen horretan parte hartzeko asmoa dutenek batzarrean eman behar dute izena. Modu berean, gaixoen gertuko lagunek eta senitartekoei haien berri eman ahal izango dute, eta proposamenak aurkeztu.

Batez ere, sei hilabetez baino gehiago gaixo dauden bazkideak bisitatuko dituzte, baita etxetik kalera irteten ez direnak ere.

Horrez gain, egunean, azaroaren 4an, bizkarreko minen gaineko berbaldia antolatu dute. 17:00etan izango da, Uribarriko erretiratuen egoitzan.



Abaroako mahai-jokoaren txapelketa

Joan den eguaztenean, azaroaren 26an, Abaroako elkarteko mahai-jokoaren txapelketa jokatu zuten. Lagun asko batu ziren eta arratsalde osoa igaro zuten horretan. Briskan 14 bikotek jokatu zuten, billarrean sei lagunek, musean sei bikotek eta tutean zazpi bikotek.

Txapelketa hori urtero egiten dute, eta oso giro ona egon ohi da txapelketa osoan. Irabazleen izenak ez dituzte aditzera eman; hain zuzen ere, sariketan emango dituzte aditzera, baina oraindik ez digute esan noiz izango den. /I.B.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



ARAMAIO
Aimar Kerejeta
Abenduaren 2an, 3 urte.
Zorionak! Amatxo eta aita-
txo.



ARRASATE
Ane Arana
Abenduaren 1ean, 5 urte.
Zorionak! Aitaren, amaren
eta amamaren partetik.



ARRASATE
Lur Sampedro
Azaroaren 21ean, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoen,
partetik.



ARRASATE
Jon Gonzalez
Azaroaren 25ean, 4 urte.
Zorionak! Elena eta Dosi.



ARRASATE
Andoni Garcia
Azaroaren 29an, urtebete-
tzea. Zorionak! Gurasoak,
arrebak, koinatuak, lobak.



ARRASATE
Kevin Cadavid
Abenduaren 3an, 8 urte.
Zorionak! Aneren eta
Nagoreren partetik.



ARRASATE
Andoni Martin
Abenduaren 3an, 4 urte.
Zorionak! Lehengusuen par-
tetik.



ARRASATE
Udane Uribarren
Azaroaren 29an, urtebete-
tzea. Zorionak! Besoetan
daukazunaren partetik.



ARRASATE
Maialen Blazquez
Azaroaren 22an, 10 urte.
Zorionak! Ama, aita eta
Jon.



ARRASATE
Aitor Madinabeitia
Abenduaren 2an, 4 urte.
Zorionak! Josu eta etxe-
koak.



ARRASATE
Xabier Zabala
Abenduaren 3an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Karmen Arrieta
Azaroaren 27an, urtebe-
tzea. Zorionak! Ander,
Malen eta etxeakoak.



ARRASATE
Malen Arana
Azaroaren 27an, 2 urte.
Zorionak! Etxekoak.



GASTEIZ
Elene Balantzategi
Azaroaren 28an, 6 urte.
Zorionak! Aitatxo, amatxo,
Lierni eta Etxaluzekoak.



ARAMAIO
Ane Gardoki
Abenduaren 1ean, 4 urte.
Zorionak! Amatxo, aitatxo
eta lagunak.



ARRASATE
Jon Elkoro
Azaroaren 28an, 8 urte.
Zorionak! Ama, aita, Mai-
te eta Ane.



ARRASATE
Uxue Otxoa
Azaroaren 23an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoen
partetik.



ARRASATE
Ioritz Gutierrez
Azaroaren 25ean, 5 urte.
Zorionak! Aitatxo eta ama-
txo.



ARAMAIO
Jose Lorenzo
Azaroaren 28an, 37 urte.
Zorionak! Maite eta Txusky.



ARETXABALETA
Goiatz Estevez
Azaroaren 27an, 6 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Naroa Fernandez
Azaroaren 29an, 1 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat gurasoen partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS Otalora
Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



GORKA MORRAS

Non eraiki dute argazkian erakusten dugun pasabide hori?
Arrastoa: saltoki handi batetik gertu dago.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASÁTE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Nescafe naturala
200g-ko potea

3,99 € 664 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JESUS JIMENEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jesus!
Galderen erantzun zuzena:
Joxe Arriaran 'Arriaran II.a'.

ARRASATEKO HISTORIA

San Frantzisko kalearen eta elizaren gainekoa (I)

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Olarke kaletik ateratzen da San Frantzisko kalea, San Frantzisko elizaren ezkerretatik; handik Markoalderantz egiten du eta han bertan bukatzen da.

San Frantzisko komentua eta eliza aipatu beharra dago kale hartan. Juan de Araotz eta Uriarte arrasatearrak eta haren emazte Ascension de Garibaik sortu zuten komentua. Izan ere, Juan de Araotz hiltzear zegoen eta seme-alabarik ez zuela-eta, Zacatecasen pilatutako ondasunak komentua sortzeko eman zituen, 1575ean. Fray Francisco de Tolosak esan zuen aurreneko meza, 1582ko uztailearen 6an.

Komentua eta eliza Fray Migel de Aranguren anaia legoaren zuzendaritzapean eraiki zituzten. Gipuzkoako arkitekto esanguratsua izan zen anaia hura. Bestalde, sortzailearen eta haren emaztearen gorpuzkiak euren dako bereziki eginiko kaperan gorde zituzten. 1673an klaustroa egin zuten. 1675ean margolari batek han dauden 24 margolanak egin zituen, San Frantzisko de Asisko bizitzaren pasarteekin.

1582an esan zuten lehenengo meza San Frantziskon eraiki zuten aurreneko kaperan

Fray Migel de Aranguren anaia legoaren zuzendaritzapean egin zuten eraikina

Tenpluaren aldarerik zaharrena Kristoren kaperan dagoena da. Hainbat erlikia daude leku hartan.

Garibaik honelaxe deskribatzen du erlikia horiek San Frantziskora ekarri zituzteneko unea: 1588ko urriaren 9an, Mondragoeko alkate On Pedro de Otorra eta haren aitagina-rreba Juan Martinez de Urrupayn, Per Osoa de Arizpe,



GORKA MORRAS

Juan de Araotzek Zacatecasen lortutako ondasun guztiak komentua sortzeko eman zituen.

Martin Osoa eta Domingo Lopez de Zelaa eta herriko bestelako gizon esanguratsu asko egunsentian zaldiz joan ziren herriko mugarrietara, Oñatitik zetorren Fray Francis-

co de Tolosari harrera egitera. Maalan egin zioten harrera, Kontzezinoko ospitalean, mosketoiekin eta arkabuzekin. Ospitalearen aurreko aldean errezel bat zegoen, karmin koloreko

damasko eta guzti. Harekin batera, Erromatik ekarritako kutxa bat zegoen, oso ondo landutakoa; barruan erlikia santuak zituen, San Frantzisko monasterioarendakoak.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko azaroaren 28a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02



Martitzenean, bihotzerako eta, oro har, osasunerako egokia den gosaria hartu zuten ikasleek.

San Martin eskolako lanen bigarren zatia bukatzeaz

Aspaldian lanak egiten dabiltza San Martin eskolan. Hain zuzen ere, eskolak behar dituen konponketak-eta egiten dabiltza. Hiru zatitan banatu dute eskolarako proiektu osoa eta jakinarazi digutenez, dagoeneko bigarren zatiari dagozkion lanak bukatzeaz daude.

Aldatzeko beharra zuten leihoak eta ateak aldatu dituzte bigarren zati horretan, eta horrekin batera informatika gela bat egokitzen dabiltza. Besteak beste, gela margotzea falta zaie guztia bukatzeko.

INFORMATIKA GELA BIKOITZA

Hala, behin lanak bukatuta, orain artekoarekin konparatuz, informatika gela bi bider handiagoa izango da. Izan ere, Jaurlaritzaren Premia Plana izeneko programaren bitartez, konponketak egin ostean, besteak beste, zazpi ordenagailu berri izango dituzte.

Horrez gainera, eskolaren sarreretak baten, zailtasunak dituztenendako arrapala ipini dute. Horren lanak bukatu barik daude; eskudela ipintzea falta da, esaterako. Eta, horrekin guztia-ekin batera, eskolan egiteko zeu-

den bestelako lan txikiak ere egin dituzte: itoginak konpondu eta eskailerako eskudel osoa egokitu, adibidez. Eskudelaren kasuan, umeendako arriskutsu samar zegoen, tarte zabalegiak zeuzkan eskaileraren eta barandaren artean. Hori konpontzeko aldatu dute eskudela; orain, tarte horiek estalita daude.

HIRUGARREN ZATIA

Behin esandako lan guztiak bukatu ostean, proiektuaren hirugarren zatiarekin hasiko dira. Hiru lan handi egingo dituzte zati horretan: batetik, igogailua ipiniko dute, zailtasunak-eta dituztenendako; bestetik, jangelako sabaia jaitsi egingo dute. Kontua da jangelan zarata handia egoten dela. Hala, sabaia jaisten badute, zelanbait isolatu egingo dute gela hori, eta bide batez arazoa konponduko dute.

Eta, bukatzeko, eskolan komun gutxi daude eta daudenak txikiak dira. Gabezia hori ere konponduko dute.

BIHOTZERAKO GOSARI OSASUNTSUA

Lanak alde batera utzita, baina eskolatik alde egin barik, marti-

tzenean gosari berezia izan zuten ikasleek: fruta, urdaiazpiko egosia, oliba-olioa, esnea, Cola-Caoa eta ogia. Itxura ederra izateaz gain, jaki horiek osasunerako ezin hobekak direla ikasi zuten, Gasteizko San Jose klinikakoei esker. Izan ere, zenbait elkartek abiarazitako ekimen baten bitartez, umeak hezi gura dituzte modu osasuntsuan jan dezaten. Hala, eskolarik eskola ibiltzen dira gosari osasuntsu bat zer den erakusten.

Orain dela lau urte abiarazi zuen ekimen hori Bihotz Bizi izeneko elkarteak. Gipuzkoan hasi ziren. Apurka-apurka elkarte gehiagok bat egin dute ekimenarekin (Eroskik, San Jose klinikak...). Aurten, aurreneko aldiz, Araban ere dabiltza lanean.

ARAMAIARRAK IRRATSAIOAN

Bukatzeko, eguaztenean Euskadi Irratiko *Maritxu Berritsu* irratiaioan parte hartu zuten San Martin eskolako ikasleek. Lehen ziklokoek ipuinak kontatu, olerkiak errezitatu, abestiak eta koplak abestu... zituzten. Eta bigarren ziklokoek liburuen, zinemaren ekologiararen... gainean berba egin zuten.

LABUR

Aldaketak egin dituzte Aramaiotik pasatzen den autobusaren ordutegian

Udalak jakinarazi digunez, aldaketak egin dituzte herritik pasatzen diren autobus biren ordutegietan. Hala, Arrasatetik Gasteizera joateko 20:30ean zegoen autobusa kendu eta 18:30ean ipini dute. Eta, Aramaiotik Arrasatera 18:45ean zegoen autobusa kendu eta 19:15ean ipini dute zerbitzu berria. Horrez gainera, Arrasatetik Aramaiora joateko beste zerbitzu bat ipini dute, 19:00etan.

Herrian egiten dabiltzan zenbait lan gainbegiraturak

UBANE MADERA

Santa Ana ermitatik gertu pasatzen den erreka bazterreko lanak bukatu dituzte. Orain, Bañera parkean hasi dira antzerako lanak egiten. Bestelako lanen bat aipatzearen, Oletan errepidea zabaltzeko egiten dabiltzan lanak bide onetik doazela jakinarazi digute Udaleko teknikariek.

Santa Ana ermitan eta haren kanpoko parkean Aramaio erreka-aren albo bietako harri-lubetak konpontzen ibili dira.

Erreka bazterrak sendotzea zen helburua, zenbait lekutan horma zatiak jausita zeuden-eta. Mendigorri enpresako langileek egin dituzte lanak. Haien adierazitakoaren arabera, besteak beste, burdinazko habeak sartu dituzte hormak sendotzeko.

Hala, hango lanak bukatu dituzte, eta orain Bañera par-

kean sartu dute hondeatzeko makina. Parketik pasatzen den erreka zatian ere bazterretako hormak sendotuko dituzte.

BESTELAKO LANAK

Horrez gainera, bestelako lanen artean, aipatzekoa da, adibidez, Oletan egiten dabiltzan lanak aurrera doazela. Hain zuzen ere, errepidea zabaltzeko lanak egiten dabiltza han.

Oletatik Ibarrerantz etorrita, Udaleko teknikariek jakinarazi digute, era berean, Salturralde baserrira doan bidea konpondu dutela. Kontua da zulo handia egin zitzaioela hormigoizko bide horri.

Eta, orain dela aste batzuk jakinarazi genuen laster txabola bat konponduko dutela, gero etxez etxe batutako olio han gorde eta birziklatzera eramateko. Kontua da oraindik ez dutela txabola konpondu. Baina hala egingo dutela berretsi digute.



Santa Ana ermitatik Bañera parkera joan dira erreka bazterrak konpontzera.

Zinema emanaldiak izango dira Gabonetatik aurrera zapatuetan

UBANE MADERA


Gabonetatik aurrera zinema emanaldiak izango dira zapatuetan. Herriko gazte talde batek egin du proposamen hori, eta Udaleko Kultura Sailak onartu egin du.

Zinemazale talde batek Udalarri eskatu dio domeketan zinema emanaldiak egiten dituzten moduan, ea posible izango litzaitekeen zapatuetan gauza bera egitea. Baina, kasu horretan, edozein film komertzial eman beharrean, sariren bat (Oscarrak, Donostiako Maskorra, Alemaniako sariak...) irabazi duten filmak ematea proposatu diote Aramaio Udalarri.

GABONETAN HASIKO DIRA

Udaleko Kultura Sailak onartu egin du proposamena; eta erabaki dute Gabonetan hasiko direla zinema emanaldiak.

Hasteko, Quentin Tarantino zuzendari amerikarraren hiru film aukeratu dituzte: abenduaren 20an, *Pulp Fiction*; abenduaren 26an, *Jackie Brown*; eta urta-



Quentin Tarantinoren hiru pelikula emango dituzte Gabonetan.

rrilaren 2an, *Reservoir Dogs*, hain zuzen ere.

EURO BAT KOBRATUKO DUTE

Zinema emanaldien ordua eta bestelako xehetasunak oraindik zehaztu barik dituzte. Zehazten

dituzten neurrian jakinaraziko dizkizuegu. Edozelan ere, dagoeneko iragarri dute euro bateko sarrera kobratuko dutela, herriarrek zinema emanaldi horiek zelanbait baloratzeke. Aramaio Udalean proposamena egin

duen zinemazaleen taldea bera arduratuko da sarrera kobratzeaz eta bestelako eginbeharrez.

INFORMAZIOA EMANGO DUTE

Horren harira, adibidez, jakinarazi digute film eman baino lehen haren gaineko informazioa emango dietela herriarrei: sinopsia, zeintzuk diren aktoreak, zuzendariaren gaineko datuak, eta abar.

IBAN DEL CAMPONEN LANA

Bestalde, oraindik zehaztu barik dago, baina Udalak zinema emanaldi horietarako beste proposamen bat ere izan du. Kontua da Arrasaten badela zinemagintzan lanean dabilen gazte bat: Iban del Campo. Aramaion senideak izateaz gain, behin baino gehiagotan eman dizkiote egindako lanarengatik sariak. Hala, Iban del Campok egindako filmen bat ematea proposatu diote Kultura Sailari. Hori ere Gabonetan emango lukete.

Kultura Sailak onartu egin du proposamena, baina oraindik ez dute erabaki zer eta noiz emango duten.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKO TALDEEN EMAITZAK

Gol mordoa ikusi ahal izan zuten zapatuan herriko kiroldegian egon zirenek Bañerako taldeen partiduak ikusten. Mutilen kasuan, 11-1 irabazi zioten Los Herran taldekoiei; eta neskek 0-19 galdu zuten Jesus Obreroren kontra. Oraingo asteburuan, mutilek La Milagrosa taldea izango dute aurrez aurre, Canciller Ayala kiroldegian, Laudion. Eta neskek Ekialde taldearen kontra jokatu beharko dute. Ekialden izango da partidua. 11:00etan jokatu dute bi taldeek.

ZINEMA

Oraingo domekan *La gran aventura de Wilbur* filma emango dute.

BAGARE LEHIAKETA

Iker Agirrek eta Andere Arriolabengoak joan den barikuan jokatu zuten kanporaketarako lehiaketa. Egindakoarekin pozik geratu ziren, baina ez zuten lortu finalerako txartela. Hortaz, aurten ez da Aramaioko ordezkariarik izango Bagare lehiaketako finalean.

BOTEPRONTOAN/ Iker Agirre · Bertsolaria

“Orain arte ondo ibili naiz bertsoetan eta hemendik aurrera ere zerbait egin beharko...”

Azkenaldian behin baino gehiagotan Iker Agirre izeneko bertsolaria izan dugu ahotan. Oraingoan, aurkeztu egingo dizuegu, berari egindako honako elkarrizketatxo honen bitartez. Kaletarra dela kontatu digu, 16 urte dituela, Almenen DBH dabilela ikasten eta gero moduluren bat-edo egiteko asmoa daukala:

Noiztik zabilta bertsoetan?

Bertso-eskolan orain dela urtebete inguru eta bertsoetan edo kantuan orain dela sei bat hilabete.

Zeinengandik edo zerengandik etorri zitzaizun bertsoaritzarako zaletasuna?

Maisuarengandik, Manexengandik. Berak bultzatu nau bertsoetan hasteko.


Zelatan ba? Erraztasuna zenukela ikusi zuen, ala?

Ez dakit ba. Gure adinekoekin talde bat egitea gura zuen eta ni ere sartu ninduen.

Baina, zuzen zerbait ikusiko zuen...

Niri beti etortzen zitzaidan bertsoetan, eta neuk ahal den neurrian erantzun egiten nion. Zein duzu bertsoetan eredugarri? Manex bera. Maisua da eta bera esan beharko (barreak).

Joxe Agirre ala Maialen Lujanbio?



“Bertso eskolan orain dela urtebete inguru hasi nintzen, eta kantuan orain dela sei bat hilabete”

Bat aukeratzekotan eskola berria nahiago. Maialen Lujanbio. Entzuteko gehiago gustatzen zait. Samurragoa da, gai aldetik zein kantatzeko moduarren aldetik. Maialeni Joxe Agirrerri baino samurrago ulertzen zaio.

Orain Gizpuzkoako Txapelketa jokatzeko dabilta. Zein da zure favoritoa?

Maialen bera edo Mendiluze. Bien artean egongo da txapela. Uste duzu halako txapelketek eta bertsoaritzaren indartzeko balio dutela?

Txapelketetara jende gehiago joaten da, beraz baietz ematen du.

Eta zeuendako balio dute?

Guretzat ere bai, saio batzuk gehiago edukitzeko. Orain bertsoari gazteendako Bagare lehiaketan ibili zara, zer iruditzen zaizu?

Hori ondo dago. Kanta zaharrek egiten da, lehiaketa berezia da. Ondo dago guretzat.

Dena dela, azkenaldian badirudi bertsoaritzaren osasunak hobertzen zela, ala?

Bai. Azkenaldian telebistan, prentsan-eta gehiago ateratzen da, eta jende gehiago dabil bertsoaritzan.

Aramaio bertso eskola aipatu duzunez, bertsoari asko dagoela dirudi herrian. Berezko kontua da hori, ala Manexena?

Manexek zerbait egingo zuen, baina, berezko kontua ere izango dela uste dut. Jendeak gogoia dauka, eta talde batzuk dabilta bertsoetan...

Zuk zeuk, zelako esperientzia izan duzu orain arte? Aurrera jarraitzekotan?

Orain arte ondo. Eta hemendik aurrera ere zerbait egin beharko da...

Noizbait ikusiko dugu Agirre txapelkun?

Ez dakit ba, ahal bada bai (barreak).

Botako duzu koplak bat TXIRRITOLAKO irakurleendako? Aramaio bertsolaria eta lokala falta-ta arrazoi gabe utzi gaituzte kale zuloan botata

“Maialen Lujanbio entzuteko gehiago gustatzen zait, samurrago ulertzen zaio”

ERRETRATUZAHARRA

Apustuaren ondorioz jokatutakoa

K irol kontuak ekarri ditugu oraingoan argazki zaharren tarte honetara. Futbol kontuak, hain zuzen ere. Irudiotako argazkia ez da futbolari profesionaleri ateratakoa; izan ere, herritarrek sortutako futbol talde bati ateratako argazkia da.

Denboran urte batzuk atzera egin, eta 1947-48raino joan behar dugu argazki horren jatorriaz berba egiteko. Zalduspen zegoen futbol zelaian dago aterata. Besteak beste, futbolarien atzean eraikin bat ikusten da. Biltegi moduan erabiltzen zuen hura Union Cerrajera lantegiak. Geroago, ospitalea egin zuten han, eskualde ospitalea, hain zuzen ere.

Argazkian agertzen direnek koadrila arteko apustu batengatik jokatu zuten futbol partidua egun hartan. Gure berriemailea domeka zelakoan dago; izan ere, sasoi hartan zapatuak lanegunak izaten ziren, eta nekez egongo zen halako gizon taldea futbolean jokatzen. Era berean, hiru lagun traje eta gorbata jantzita daude



argazkian; jaiegunetako ohitura izaten zen hori. Edozelan ere, ezin izan dugu jakin nork irabazi zuen apustua.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Simon Arregi, Fernando Uranga,

Juanito Amozarrain, Joseba Agiriano, Marcelino Sanz, Luis Mari Aranburu, Angel Dominguez eta Juanito Urkiola.

Eta behean, makurtuta eta ezkerretik eskumara, honako hauek daude: Adolfo Erguin, Juan Mari Roa,


Jon Bengoa, Angel Guridi, Eugenio Arregi eta Felix Zubillaga.

Argazkia: ARRASATE PRESS
informazioa: Angel Guridi.
Urtea: 1947-48


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zaldibarko torloju fabrika

Joan den astean egin genuen urrian itxi berri duten fabrikaren gaineko erreportajea. Hainbat argazki zahar genituen eskura, baina ez genuen gaur egungo argazkirik atera. Fabrika itxi badute ere, eraikina zutik dago, eta barruan labeak eta lanerako tresneria daude. Fabrika horretako azken langileek, egun, Kataide industrialdean egiten dute lan.



≈ 1930 Union Cerrajera 1906an sortu zuten. Zaldibarren dagoen torloju eta gabila fabrika, berriz, 20 urte geroago eraiki zuten.



2003 Lehengo industria-guneetan etxebizitzak egiten dabilta. Laster, Industria Erakusketa izango da UCEMek herrian izango duen ondare bakarra.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

EGUZZKIGRAF →
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea F-0-4
Fincoa: 791844
Faxa: 792941

LAKET

Bonaventure Diesel
Pepe Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

T A A
M O A
Y ■ O

J. URIARTE
PAPERDENDA

AGENDETAN ETA ESKRITURETAN

- %10EKO ETA %15EKO DESKONTUAK
2003/12/15era arte

*Idazkera PAPERARI erabat lotua dago.
Abenduaren 15era arte %10eko deskontuak izango dituzu Montblanc,
Faber-Castell, Parker, Waterman eta Rotring marketan,
baita larruzko edozein agendatan ere.
Eta zure aukera Agenda + Eskritura baldin bada,
deskontua %15ekoa izango da.*

Txartela aurkeztea beharrezkoa da

J. URIARTE PAPERDENDA

Montblanc
Faber-Castell
Parker
Waterman-Rotring

- %10

2003/12/15era arte



J. URIARTE PAPERDENDA

Montblanc
Faber-Castell
Parker
Waterman-Rotring
+ larruzko agenda

- %15

2003/12/15era arte



edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

ILE APAINDEGI MISTOA



Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Orduetgia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

BITXORI

Ile apaindegi



Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

ILEA

UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARIN BIOTHERM VALMONT

*Edertasun Gidan
parte hartzeko,
deitu 943 71 23 91
telefonora*

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida